# ttipi-ttapa

**225.** zenbakia • 1998ko martxoak 12 • **XVII.** urtea




# Mendi mutil Frantzian: Gure herriak hustutzen zituen lanbidea

## *«Urte batzutan ehun lagunetik goiti joan ziren Arantzatik Frantziako basoetara, pentsa nola gelditzen zen herria!»*

Orain dela hogeita hamar urte arte, eskualdeko lantegirik haundiena Alpeetan eta Pirinioko mendietan zegoela erran daiteke. Ehundaka ziren sorterria utzi eta mendi horietan arbolak botatzen, pikatzen, zura edo ikatza egiten... aritzen zirenak. Hemen lan egiteko aukerarik bazen, baina han soldata ez ezik, mantenu hobea ere bazuten. Hori bai, gogor lan egitearen truke: normalean 9-10 hilabeteko egonaldiak egiten zituzten, otsaila hondar edo martxo hasieran harat joaten ziren Eguberrietan bueltatzeko. Astelehenetik igande eguerdira, goizean goiz hasi eta gaua egin arte oihanean lanean. ☞ 3


**6** Iritzia: **Arbola botatzeak Bertizko basoan**
Biologo baten, Ingurugiro Saileko Zuzendariaren eta Gurelur elkartearen iritziak.

**29** Kirola: **Doneztebeko Erremonte Eskola lanean hasiko da abudo**
13 eta 22 urte arteko pilotari gazteak erremontean trebatzeko Eskola sortuko da Donezteben, Iñali Lizasoren eskutik.

**30** Agenda: **TTIPI-TTAPA Telebista Malerrekan**


**TTIPI TXARTELA**: Erosi zeurea eta erabili!






Kirola:

**Amaia LUJANBIO**

*«Proba batean parte hartzen dudanean garaipenaren bila ateratzen naiz»* dio 16 urteko korrikalari goizuetarrak. Bere adinean Euskal Herriko kros txapelduna suertatu da eta martxoaren 22an Palentzian burutuko den Espainiako txapelketarako prestatzen ari da. Gero pistan lehiatuko da. ☞ 28



AMETS MUEBLES
mobleak orokorrean
Bidasoa
MOBLEAK
NEURRIRA EGINAK




LACAMBRA
Parrokia, 18 • DONEZTEBE
© 948.450082
53 cm³
74.000 Pta*
62 cm³
82.150 Pta*
272XP
72 cm³
110.000 Pta*
365
BERRIA!!
371XP/XPG
BERRIA!!
250R
245R
235R
E-tech
Eskeintza
bereziak
sasiak
garbitzeko
makinetan
* Ditugunak agortu arte
Husqvarna



1958an hamabi lagun joan ziren Ezkurratik Piriniotara: Justiniano Gorostiaga, Gregorio Noble, Salvador Goikoetxea, Sergio Gomez, Francisco Aranburu, Francisco Olagarai, Francisco Goikoetxea, Pantxito Gorostiaga, Jesus Mindegia, Felix Huizi, Juan Goikoetxea eta Mikel Telletxea. Beraiekin batera, Jose, Italiako enkargatua ageri da.

Pantxito Gorostiagak utzia

# Mendi mutilak
## Garai bateko lanbidea

***Orain hogeita hamar bat urte arte aunitz ziren gure herriak utzi eta Alpeak eta Piriniotako mendietara basoan lanean aritzera joaten ziren gazteak. Hemen, baserritik kanpo lantegi haundirik ez eta han, berriz, jornal polita. Hori bai, eguzkia ateratzen zenetik gorde bitartean eskulanean aritu behar zuten –motozerra 60. hamarkadan sartu zen–, astelehenetik igande eguerdira. Baina lan gogorretan zaildutako gazteak ziren. Ia urte osoa ematen zuten inguru haietan eta Eguberriak etxean pasatzera itzultzen ziren. Otsailean mendira itzuli behar zutenez, zenbait herritan aitzindu egin zituzten Ihauteriak. Atzerriko oihanetara doan mendi mutilarena, ordea, desagertze bidean dagoen ofizioa da.***

TESTUA : *AITOR* ***AROZENA***

Gaur egun ez da ia inor joaten Frantziako mendietara basoan lanean aritzera. Arantzan, ordea, duela 30 urte ehun lagunetik goiti joaten ziren Pirinio eta Alpeetako mendietara. 90. hamarkada hasieran, sei-zazpi lagun joaten ziren oraindik. Orain, aldiz, inor ere ez. Panttaleon Errandoneak, adibidez, urte mordoxka eman zuen Pirinioan. *«1952. urtean hasi nintzen, hamabortz urte bertzerik ez nuela eta 1968 urtera artio, urtero-urtero joan nintzen»*. Hemen zegoen lan eskasiak bultzatu zituen gazte hauek mendira, Panttaleonen ustez ez baitzen alde haundirik hango eta hemengo soldaten artean. *«Metroka edo estereoka ordaintzen zuten han eta hemen, baina hemen ez baitzen lanik, hori zen problema, norapaite joan behar zen. Mantenua ere hobexeagoa izaten zen»*.

Bertzelako iritzia du Ezkurrako Pantxito Gorostiagak: *«aurreko neguan hemen hameka-hamabi duro irabazten ziren eguneko eta han berrogei duro pagatzen ziren eguneko»*. Urte batez bakarrik joan zen Pantxito Behe Pirinioetako



1966an Orgeisen Juanito Etxeberria (Doneztebe), D. Esteban Irigoien (Arantzako apeza, maiz xamar bisitan joaten zena), Panttaleon Errandonea (Arantza) eta Juan Simon Goizueta (Lesaka). Totorika, Saturnino Pikabea 'Bikaiztegi' (Lesaka), Antonio Bergara (Arantza) eta Fco. Elizalde 'Zamuio' (Etxalar).



Ezkurrako koadrila honek aizkol apostuetan aritzeko astia hartzen zuen. Hemen mendian ageri badira ere, behin, nagusiak eraman trontza eta aizkora apostu batean ere aritu omen ziren Luchonen, P txito Gorostiagak gogoratzen duenez.

Sangoudettes-era, Lourdes ingurura, bertze hameka herritarrekin batera. *«Lau, sozio gisara joan ginen, eta herriko bertze zortzi mutil eraman genituen, 1958an»*.
Jornalean ez ezik, janarian somatu zuen alderik haundiena Anizko Gantxitoneako Martin Altzuartek ere. *«Hemen baba, baba eta baba jaten genuen. Han gosaltzeko beti zingarra izaten zen, eguerdian haragi pittet eta arratsean tortilla»*. Mendiarekin lotutako bizimodua eraman du Martinek, 43 urtez, *«nere denbora guzian, hamasei urtetan hasita»* berak dioenez. Lehenbizi Nafarroako Pirinioan, Huescan... 1960an joan zen Frantziara, Goi Piriniotara, 30 mutilekin batera eta hemezortzi urtez aritu zen.

### «Astelehenetik igande eguerdira aritzen ginen»

Soldaten arteko aldean iritzi desberdinak badaude ere, ez da gauza bera gertatzen hango bizimoduaren gogortasunaz aritzerakoan. *«Han ez zen bestarik* –diote guziek– *astelehenetik igande eguerdia bitarte lanean, egunero. Goizean hasi eta gaua bitartean»*. Andres Olaizola goizuetarrak, honela laburbiltzen du eguneko plana. *«Eguna hasitze ordu jeiki, gosari txikia egin eta mendira. Zortzietan gosaria, hameketako pixko bat, ordubatean bazkaria, berendua bostak aldean eta arrunt ilundu arte lana egin»*. 23 urtetan joan zen Andres Piriniotara, Maule ingurura. Zortzi urte eman zituen bertan eta beste bat Alpeetako Côte d'Azuren. Gervasio Altzuri aranztarrak gogoratzen duenez, *«igande arratsaldea garbitzeko eta arropak josteko aprobetxatzen genuen, aste guzian ez baikenuen ezta aurpegia garbitzen ere. Herririk ez genuen hurbilean eta ez ginen ateratzen»*. Gervasio ere Piriniotan ibili zen, Aretten, 1962tik 1969ra.
Bederatzi-hamar hilabeteko denboraldia egiten zuten. *«Otsailean joaten ginen, bestetarako aste bat etortzen ginen eta gero Santa Luzia Eguna arte han egoten ginen»* dio Gervasiok. Lehenbizian ez ziren denboraldian zehar etxera bueltatzen, baina azkenean, kotxeak ugaritzen hasi zirenean gehiago etortzen ziren bueltan. Han zeudenean ere, sorterriko berri izaten omen zuten, herrimina arintzeko nonbait. *«Arantzako berri izaten genuen, karta bidez eta Don Esteban apezak bildatzen zituen periodikoekin»*, Panttaleonen hitzetan.

### «1961ean sartu zen motozerra»

Lanbide gogor hau pixko bat xamurtu zuten aurrerabideak ere poliki-poliki ailegatu zi-ren mendi kaxkoetara. 1960. hamarkada bitartean eskulanean aritzen ziren, arpana eta aizkorarekin. Orduan iritsi zen motozerra –1961. urtean, Panttaleonek ederki gogoratzen duenez– eta biak probatu zutenek, aldaketa haundia izan zela onartzen dute. Martin Altzuartek erran digunez, *«bi erosi genituen eta hori diferentzia gogorra izan zen»*. Bertze horrenbertze erran daiteke mendian zuten bizilekuaz. Hainbat urtetan txabola kaxkar batzuetan lo egin zuten, Martinek dioenez, *«ohatzea egiteko taula baten gainean lastoa paratuta. Hondarrean etxeetara gaten ginen»*. Panttaleonek ere somatu zuen aldaketa hau. *«Hasieran txabolatan bizitzen baginen ere, hondarko bortz urteetan fabrikak egindako txalet batean egon ginen. Argia, ur beroa, dutxa eta dena genuen orduan, baina bitartean ahal zen bezala moldatzen ginen»*. Normalean ura txabola ondoan izaten zuten mendian, baina Andres goizuetarrak dioenez, *«Côte d'Azuren kablean igotzen genuen ura. Egurra jautsi eta ura igo»*.
Eratsun, Saldias, Donamaria, Oitz, Urrotz eta Zubieta inguruan ere, gutti dira berrogeita hamar urte beteak izan eta ofizio hau probatu ez dutenak. *«Hirurogei zubitar inguru joaten ginen urte batzuetan»* dio Juan Elizaldek. Bera, Eustakio, Pedro eta Patziku anaiekin batera aritu zen Piriniotan. *«22 urtetan hasi eta 12 urtez aritu nintzen zu-*



Frantziako basoetan ez ezik, aspalditik Irati aldean eta Maule inguruan ere aritzen ziren inguru honetako mendi mutilak

Argazkia: Patziku Perurenaren «Leitzako errege-erreginak» liburutik bildua



Eustakio Elizalde Zubietarra, Miguel Mª Lasaga iturendarra eta Eustakio Bazterrika iturendarra ageri dira orain dela hogeitazortzi urte inguru ateratako erretratoan.



Hasieran txabolatan nola edo hala lo egiten bazuten ere, 1965. urte aldera lantegiak etxea eraiki zien lanean ari zirenei, *«ur beroa eta guzi»*. Etxe aitzinean ageri dira, bertzeak bertze, Arantzako Patxiku Bergara 'Zumarra', Primitivo Errandonea, Florentino Sein eta Panttaleon Errandonea eta Lesakako Isaac Altzugarai eta Guillermo Garcia.

*ra egiten, abetoa eta pagoarekin. Zura egin, mandoekin mugitu, kablera lotu eta bueltaen... Anaiak urte gehiagoz ere joan ziren».*

### «Euskaldunak estimatuak ziren mendi lanean»

Bistan da mendi mutil euskaldunak hagitz estimatuak zirela, lan gogorrari beldurrik ez ziotenak izaki. Panttaleonek gogoratzen duenez, *«txoferren bat edo bertze Santanderkoa izaten zen, enkargatuak frantsesak normalean, baina gehienak euskaldunak»*. Pantxito Ezkurrakoaren ustez ere *«euskaldunak oso estimatuak izaten ginen han. Ni urtebetez bakarrik joan nintzen, baina hurrengo urtean ere ahaleginak egin zituzten ni eramateko, baina badakizu, ezkondu nintzen eta... Besteek segitu zuten, bai, hainbat urtez»*. Martin aniztarra, arduraduna izaki, langileak nondik eramaten zituzten gogoratzen da. *«Gehienak hemen ingurukoak baziren ere, gailegoak aunitz ereman gintuen, hemen ez baitzen jende aski»*.

### Gero eta guttiago dira lanbide honetan ari direnak

Industrializazioaren eraginez eskualdean lanpostuak sortu zirenean hasi zen mendi mutil ofizioaren gainbehera. Ezkurran oraindik bi lagun badira Frantziara joaten direnak. Miguel Goikoetxeak urte osoa ematen du kanpoan. Eguberriak eta iñauteak sorterrian igaro ondotik, otsailaren 16an itzuli zen lanera. Jaime Gastearenak, berriz, egunero egiten du joan-etorria eta asteburua, normalean, Ezkurran ematen du, hurbil xamarrean izaki. Urrozko Juanena anaiek ere Alpeetan ematen dute denboraldia, Zubietako Juanto Santestebanek bezalaxe. Beartzundik oraindik joaten diren bi lagun ezagutzen ditu Martin aniztarrak, *«baina hemen hurbil xamar aritzen dira»*. Eratsunen ere bada bakarren bat joaten dena.

Frantziara inor gutti joaten bada ere, gure inguruko mendietan basoan aritzen den jenderik bada, noski. Biak probatutakoa –Frantziakoa eta hemengoa, alegia– da Leitzako Astibiabeheko Juan Jose Sagastibeltza. 26 urte eman zituen Ariessen (Frantziako Tolosa inguruan) eta duela bi urtez geroztik, Evaristo anaiarekin ari da hemen. *«Han ez zen gruarik eta dena eskuz kargatu behar zen. Oraingo aldean lan gogorra zen orduan»* dio. *«Gaur egun ez da kasik inor joaten, baina garai batean euskaldunez josia izaten zen inguru hura»*. ■





Martin Altzuarte eta bere mutilak Goi Piriniotako mendietan ageri dira gaineko bi argazki hauetan. Ageri denez, idiak ere erabiltzen zituzten egurra kableetara garraiatzeko.

Argazkiak: Pantxito Gorostiaga, Panttaleon Errandonea, Martin Altzuarte eta Eustakio Elizaldek utziak

ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 8.300 ALE

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa: 63 11 88
Faxa: 63 12 91
**Internet:**
http://www.encomix.es/ttipi-ttapa
**e-mail:**
ttipi@encomix.es

**uzendaria:** Joxemanuel Irioien. **Publizitatea:** Miren Karnele Tolosa. **Erredakzioa:** Aior Arozena, Asier Gogorza, Joemanuel Irigoien. **Administraioa:** Amaia Goia. **Erredakzio aldea:** Pello Apezetxea, Juaias Paul, Kristina Boan, Bittori elletxea. **Berriemaileak:** Joeba Azpiroz, Esteban Arozena, uana Mari Saizar, Ainhoa lutuberria, Iban Isasi, Txema ldabe, Patxi Otxandorena, Jaioe Otxandorena, Alba Fernanez, Pablo Mendiburu, Joseba garabide, Franc Dolosor, Marari Etxenike, Koro Irazoki, Miel Gerendiain, Jacqueline, Eliabet Iturria, Garbiñe Maiz, Osar Txoperena, Pello Apezetxea, itor Arozena, Asier Gogorza.
**olaboratzaileak:** EHNE Nafaoa, Mikel Bezunartea, Joxe Jaier Etxeberria...
**nprimategia:** Gertu.
***tipi-ttapa***k ez du bere gain harzen derrigorrez, aldizkarian adieazitako erranen eta eritzien eranzukizunik.
**rakunde Laguntzaileak:** Bea, Leitza, Goizueta, Areso, Bazan, Urdazubi, Zugarramurdi eta arako udalak, Bortzirietako Eusara Mankomunitatea, Malerreako Zerbitzu Mankomunitatea, ugarramurdiko Akelarre Elkarea...

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**



GAURKOTASUNEKO GAIA

# Arbola botatzeak Bertizko oihanean

## Espero dugu guzti honen atzean egurketarien interesik ez egotea



Noelia LOPEZ
Gurelur elkartekoa

Ingurugiro Departamentuak oihan bikain honetan egur-esplotazioa justifikatzeko erabiltzen duen argumentu nagusia pagoen leheneratze eza da. Baieztapen hau funtsik gabekoa da erabat, Parke honetan gauzatu diren ikerketek aurkakoa adierazten dutelako. Ikerketa hauetan begi onez ikusten da pago gazte eta helduen ondoan lurrera eroritako pago zaharrak izatea, aniztasun horixe baita biodibertsitatea altu mantentzeko oinarria.
Pagoen birsorketa pagadiaren gainbegiratze soil batekin antzeman daiteke, pago helduen azpitik hazten ari diren pago gazte franko ikusten baita, pagatxa kopuru haundi batekin batera.
Adin beretsukoak izateagatik hogei urteko epean pago multzo haundiak erortzen ahal direla da Gobernuak erabiltzen duen bertze argumentu bat, eta hau ere faltsua da, pago bakoitza modu desberdinean garatzen baita zolaren, materia organikoaren, eguzki orduen, azpian duten uraren, orografiaren... arabera.
GURELUR elkartetik espero dugu guzti honen atzean egurketarien interesik ez egotea.

## Ordenazio-txostena ikusita, arrazoiak ditugu pagadiaren iraupenaz kezkatzeko



José TORRES
Ingurugiro Saileko Zuz.

Pedro Ciga jaunak Bertizko basoa Foru Diputazioari eman zion oinordetzan, Nafarroaren izenean. Jakina denez, bere garrantzi eta interesagatik Parke Naturala izendatu du Nafarroako Gobernuak. Bertizko gestio osorako ordenazio-proiektua aztertu ondoren, eta bertatik ondorioztatzen direnak ikusita, (adin banaketa, leheneratze ahalmena, behe-mendiko masaren egoera...), Ingurugiro, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamentuak arrazoiak ditu pagadiaren iraupenaz kezkatzeko. Ez dugu atzendu behar urte auniztan ikazkintzarako eta zonan zeuden ola ugarietarako egurra ateratzeko baliabide gisa erabili izan zela pagadi hau.
Adituen txostenaren arabera, iduritu zaigu Bertizko egoera ezagutzera eman behar dugula, lehenik talde parlamentariei. Eraberean, martxo hondar aldera zientzilari desberdinek jardunaldi teknikoak eginen dituzte, baita gaian interesa duten talde kontserbazionisten ordezkariek ere, jokabidearen nondik-norakoa erabakitzen laguntzeko.
Guztia, gune berezi honen gestioan arduraz jokatzeko xedez.

## Oihanek badute bere gisara berritzeko ahalmena

Mikel MUGIRO
Biologoa, Arizkundarra

Leheneratzearen gainean ez dago deus kezkatzekorik. Bertizen ikusten da zuhaitz bat erortzen den aldiro leku hartan gazteak pilaka etortzen direla, eta ez dut problemarik ikusten alde horretatik.
Nik uste dut, eta bertze zenbait biologorekin hortaz solastu naiz, Bertizen diren malda eta lur-zoru pobreekin zuhaitzak berez bakanduz joanen direla, beraz, ez dago denak elkarrekin erortzeko arriskurik. Bertizen zuhaitzak zaharturik ihartzea ez da normala, seguraski pagoak zahartu gabe eroriko baitira.
Nik ikusten dut badela nolabaiteko aurreritzia injineruen aldetik-eta: uste dute oihana ukitu gabe uzten bada hondatuz joaten dela, eta hori oinarririk gabeko argumentua da. Oihanek badute bere gisara berritzeko ahalmena.
Pagoen adinari bakarrik begiratu zaio, baina oihan naturala nahi baduzu bertze hainbat gauza hartu behar dira kontuan. Erortzen diren enborrak bertan usteltzen utzi behar dira, eta orain berriz, iduri du botatako gehienak atera nahi dituztela. Hor prozesu naturala moztu eginen da.

**ARTEKARI**
TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
**LESAKA:**
• Astelehenetik asteazkenera 9tatik 13tara eta 16etatik 20tara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50
**BURLATA:**
ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713
**Non:** La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

## IRAKURLEAK MINTZO

### Kilometroak-98ko logotipoa dela eta

Zuzendari Jauna:
Pena handiz eta harriduraz hartu dugu TTIPI-TTAPA aldizkariaren 222. zenbakian (urtarrilaren 29koa) argitaratu duzuen berria, Eloy Lopezen adierazpenak jasoz. Horrek bultzatu gaitu azalpen batzuk ematera.

Logotipo eta lema lehiaketetako oinarrietan argi eta garbi azaltzen zen lan irabazleak ez zirela erabiliko Kilometroak 98ko irudia zabaltzeko eta sari banaketan, Eloy Lopez bertan zela, hala gogorarazi genuen.

Kilometroak 98ko irudi eta mezu gisa erabiltzen ari garen logotipo eta lema antolaketa batzordetik atera ziren, ez dira beste finalista batek aurkeztuak aldizkarian dioen bezala. "www.euskara@mundiala.da" lema eta mundua inguruan hiru pertsonai bueltaka dituen logotipoa ari gara erabiltzen transmititu nahi dugun mezuarekin bat datozela iruditzen zaigulako: euskararen lotura munduarekin eta etorkizunarekin.

Bestalde, lehiaketetako lan irabazleak aukeratu eta saritu genituen aurkeztutakoen artean hoberenak edo gustokoenak iruditu zitzaizkigulako, egileak nongoak ziren begiratu gabe.

Euskararen aldeko ekinbide batean horrelako gaizki ulertuak sortzeak ez dio inori mesede egiten eta aldizkari horretako irakurleei argibide hau ema beharrean aurkitu gara.

KILOMETROAK 98
ANTOLAKETA BATZORDEA

### OHARRA:

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero,* **ttipi-ttapa***k bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*

### Porlana gutxiago, zerbitzu gehiago

TTIPI-TTAPAn Lesakako Suhiltzaileen Parkeari buruzko berria irakurri dut, "Suhiltzaile parke berriaren lanak ziztu bizian" jarraitzen omen dute. Beran Osasun gune berria egiten ari dira. Badakit guztion dirua erabiltzen dutenek bi eraikuntza hauek egiteko mila arrazoi zuzen edukiko dutela. Baita Berako Kultur Etxea edo Musika Eskola edo Berako eta Lesakako futbol zelaiak edo Berako Kiroldegia, etabar... Zenbat diru etorri da Iruñetik azpiegiturak hobetzeko azken hamar urte hauetan? Sobera. Zenbat diru erabili da egitura horiek behar bezala erabiltzeko? Hagitz gutti. Zenbat lanpostu sortzen ahal ziren (eta dire) horien inguruan eta zenbat sortu dire? Lau kilometroko distantzian suhiltzaileen bi parke: Benetako beharra ala antolakuntza eskasa? Suhiltzaile profesionalak berriz bakarrik ere ez. Eskerrik borondatezkoak baditugula, baina hori al da irtenbidea? Eta borondatezkoak nekatzen direnean (edo garenean) anbulatziekin gertatu den bezala? Portzierto atzo Beran moto istripuan gazte bat zauriturik suertatu zen. 40 minutu baino gehiago eman zituen lurrean etzanda manta batez estalirik anbulantzia ailegatu arte. Bizirik ala hilik? auskalo. Zerbitzuak behar ditugu, lanpostuak ere bai. Ekonomiaren zati garrantzitsua administrazioen eskutan egonik, heurek lanposturik sortzen ez badute nork sortuko ditu? Oinarrizko zerbitzurik eskaintzen ez badigute zertarako zergak ordaindu? Bada garaia lehentasunak ezartzeko. Porlana gutxiago eta zerbitzu gehiago.

OSKAR GOÑI PETRIRENA
NEKATZEN ARI DEN BORONDATEZKO SUHILTZAILEA. BERA


RAFTING EXTREM
Erreka kaineroa jeitsi nahi baduzu, apuntatu
**Nora: Lleida**, Noguera Pallaresa erreka
**Epea:** Martxoak 18
**Prezioa:** 12.000 pta
(2 jeitsiera, autobusa, aseguruak, monitoreak eta materiala)
BKZ 948 592 322
908 778 006

Xirgil
ileapaindegia
✆ 631462 • Altzate I • BERA




ttipi-ttapa
✆ 631188
Zure publizitaterik onena

KOLABORAZIOAK

**Aintzane MENDIBURU** *Senpertarra*

# Euskararen inguruko berriak



"Euskal Herrian Euskaraz, nahi dugu hitz eta jolas, lan eta bizi euskaraz eta hortara goaz...". Ikastolako haurrek ttikitan ikasten duten kantu hau ez da oraindik errealitate bihurtu. Iparraldeko gizartea bitan zatitua dela iduri du.

Alde batetik, euskara hizkuntza galdutzat daukatenak daude. Beren seme-alabek noski, ez dakite euskaraz, ezta ere hizkuntza honek, beste denek bezala, hitz, jolas, lan egin eta bizitzeko balio duela. Beren ustez, euskara hizkuntza arkaiko bat da eta ez du gaur egungo gaiez mintzatzeko balio.

Aspaldidanik demostratuak diren gauza batzuk ahantzi edo bazter utzi dituzte, hala nola, gure hizkuntzarekin kimika, informatika, medikuntza eta beste ikasten ahal direla. Badakigu euskara ez dela txinoa edo ingelesa bezain mintzatua izanen, baina hizkuntza bat den ber, bizitzeko eskubide osoa du.

Egoera hontaz oharturik eta jakinez Iparraldeko gazteen %11k bakarrik mintzatzen duela euskara, eskerrak hau dena errotik aldatzeko prest diren gazte andana bat agertu dela. Hala nola, Gazteriak-ek euskararen inguruan kanpaina haundia antolatu du. Mitin-kantaldi bat, pegatinak, traktak, kontzertu jendetsuak eta hainbat ekitaldi antolatuak izan dira biziki oihartzun ona izan dutelarik. Kanpaina honek badu berezitasunik: ez da euskal munduan mugitzen den jendeari zuzendua justuki, gizartearen beste partea erakartzeko egina da.

Hor dugu ere, 12 euskal kultur elkartek, joan den hilabetean abiaturiko Deiadar kanpaina. Helburu nagusiak, euskararen ofizialtasuna, Antolakuntza Eskemaren hizkuntza atala lehenbailehen bideratzea eta François Bayrouk hitzemandako Hizkuntzaren Kontseilua sortzea dira. Hautetsi guzieri karta ideki bat bidali zaie, sinadura bilketa zabal bat egiten ari da eta finitzeko, apirilaren 4an manifestaldi bat eginen da.

Bide onetik joaki gara bainan eguneroko bizian ez bagara euskaraz mintzatzen lan hau dena alferrik egina izanen da. Ez da aski euskaraz jakitea, erabili egin behar dugu, bestenaz zertarako balio duen galdeginen daukute!

**Bide onetik joaki gara bainan eguneroko bizian ez bagara euskaraz mintzatzen lan hau dena alferrik egina izanen da. Ez da aski euskaraz jakitea, erabili egin behar dugu, bestenaz zertarako balio duen galdeginen daukute!**

Beraz, EZ UKA, EZ LOTSA, EUSKARAZ MINTZA!

**Xabi LARRALDE** *Abertzaleen Batasuna*

# Martxoaren 15ean bozketa Iparraldean

Martxoaren 15ean bi bozketa eginen dira Iparraldean. Batetik, Akitaniako kontseilarien hautatzea eta, bertzetik departamenduko zenbait kantonamenduko kontseilarien hautatzea. Bi gauza ezberdin dira, zeren bi erakunde hauek konpetentzi edo eskumen ezberdinak dituzte frantses eredu administratiboan. Departamenduaren gain da, adibidez, irakaskuntza sailan, Ama Eskola eta Kolegioen kudeatzea. Aldiz, lizeoena eskualdearen konpetentzia da.

Abertzaleen Batasuna bietan aurkeztuko da. Hamar kantonamendutan (hiru Baionan, Hazparne, Iholdi, Labastida, Atharratze, Donibane Garazi eta Angelun bi) kontseilariak berritu behar dira eta horietan guzietan aurkeztuko da. Eskualdeko hauteskundeetan, berriz, Abertzaleen Batasuna Eusko Alkartasunaren partehartzearekin aurkeztuko da.

Martxoaren 15eko lehen itzulian eskualderako aulkiren bat lortzeko itxaropen ttiki bat bada, baina ez da erreza izanen. 1992ko kantonaletan ez zen lortu, bainan hiru eskualdetan emaitza onak izan genituen lehen itzulian. Garazin, % 26,94, Hazparnen % 27,6 eta Iholdin % 17,4. Aldiz, emaitza txarrak izan ziren kostaldean, Miarritzen eta Baionan, batez ere. Baina kantonaletan jendeak zerrendako aurpegiei aunitz begiratzen die, alderdiei baino gehiago. Herri ttikia gara, denok elkar ezagutzen dugu eta hori kontuan izan behar da.

Martxoaren 22ko bigarren itzulira begira, Abertzaleen Batasunak ez du deus erabaki, baina ABren bi ardatz nagusiak kontuan hartuko ditugu, bigarren bozketan: lehena euskal departamenduaren aldeko jarrera eta bigarren euskararen ofizialtasunaren aldekoa. Hori kontuan hartuko dugu boza ematerakoan.

**Bigarren itzulian boza ematerakoan Abertzaleen Batasunak bere bi ardatz nagusiak kontuan hartuko ditu: batetik, euskal departamenduaren aldeko jarrera eta bigarren, euskararen ofizialtasunaren aldekoa.**

Abertzaleen batasuna, izatez abertzale independienteen elkargunea da, nahiz eta Euskal Batasuna, Herriaren Alde, Ezker Mugimendu Abertzalearen sustengua ukan. ABren partaidetza ez da alderdi baten kidetzan finkatzen, baizik eta partaidetza indibidual batean. Hauteskunde hauetan Eusko Alkartasunak bat egin du Abertzaleen Batasunarekin eta bi izenak agertzen dira.

Funtsezko bi gaiak, beraz, euskal departamenduarena eta euskararen ofizialtasunarena dira. Gai hauetan, bereizten gaituzten elementuak batzen gaituzten elementuak baino ahulagoak izanik, ez dugu ulertzen PNVk zertarako aurkeztu duen aparteko zerrenda Iparraldean.

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Egunkaria, 98ko martxoaren 5a

*«Solidariook kabi bat egin dugu babestua dagoen zuhaitz honetan, izan ere babes hori Artze eta Longidako haranetako zuhaitzei eta munduko guztietara zabaldu dadin eskatzen baitugu».*

**Gabriel UNSION**
**Beratarra**
Itoitzekiko Elkartasuna taldekoa
Egunkaria 98-III-5

*«Leitzako txirrindulari taldeak jarraipena izanen du "Telco,m Fina" taldearen harrobia izanez.
Leitzako taldeko txirrindulari bat gailentzen bada "Telco,m" taldean parte hartu ahal izanen du laisterketa garrantzitsuagoetan».*

**Luis VICENTE OTIN**
"Telco,m" Txirrindulari taldeko zuzendaria. Leitza
Diario de Noticias 98-III-1

## 11 GALDERA LABUR

- **Defini zaitez bi hitzetan...**
- «Liante» bat.
- **Iñauteak pastu berriak dire...**
- Mozorroa arras ongi atera da.
- **...eta udaberrie heldu da.**
- Odolean nabari da.
- **Orain arte ikusitako mozorrorik politena?**
- Drag Queen.
- **«Fransene»n nori eta zer zerbitzea gustatuko litzaizuke?**
- Aitana Sanchez-Gijoni postre berezi bat.
- **Nor eramanen zenuke gustora zure motoan?**
- Nere ama.
- **Futbola edo «Formula 1», zer nahiago?**
- Ez bat ez bertze. Rock&rolla eta kalimotxoa.
- **Maskota bat?**
- Duende bat, S.A.koen antzekoa.
- **Ilargi berrie, gero gorapen eta... ilargi betea?**
- Ea nabaritzen den!!!
- **Oporretara nora edo norekin?**
- «Mann» irletara moto batekin.
- **Besta egun edo leku bereziren bat?**
- Baztandarren Biltzarra.



**Inaxio URSUEGI**
Tabernaria eta mekanikoa.
GARTZAIN

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE
ANZABAL
AGENTZIA
- **Zurich Aseguruak**
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
  - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
  - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxa: 580804 - ELIZONDO



Maderas GOMEN
- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 58 06 45

BAZTAN
FUNERARIA
Ehorzketa Zerbitzuak • Hilkutxen Erakusketa eta Salmenta • Trasladoak
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO
Tfnoak: 580373 • (908) 776176

LARRALDEA



SAGARDOTEGIA
Asteartetik ortzirala 8etatik aitzinerat.
Larunbata eta besta egunetan zabalik.
© 45 21 21 • LEKAROZ

EUSKARA

# Euskara ikasleak etxean hartzeko deialdia luzatu zaie familiei

Martxoaren 20a baino lehen egin behar da eskaria

TTIPI-TTAPA

HABEk antolatzen duen *Egonaldiak Familia Euskaldunetan* izeneko plangintzaren helburua euskara ikasten ari direnei euskara landu eta hobetzeko zein euskalkiren bat ikasteko aukera ematea da. Horretarako, gehienbat euskaldunez osatutako herrietan bizi diren familia euskaldunen etxeetan egonaldiak eginen dituzte. Etxean ikaslere bat izan nahi duten familiek gutxienez lau kidekoak izan beharko dute eta %70tik goitiko euskaldun-kopurua duten udalerrietan bizi.

Eskaera egiteko epea martxoaren 20a bitarte zabalik izanen da. Egun hori baino lehen eskabidea HABEko bulego nagusian *(Gasteiz, 3, Ondarreta, 20009 Donostia)* aurkeztu behar da.

Egonaldiak uztaila eta iraila bitartean eginen dira eta familia bakoitzak gehienez ere ikasle bat hartu ahal izanen du egonaldi bakoitzeko. Ikasleak logela bat izanen du beretzat eta familiak eginahalak eginen ditu ikasleak familiaren eguneroko bizimoduan parte har dezan. Ordainetan, familiak hilabetean 75.000 pezeta jasoko ditu.



**Zubieta da Nafarroan euskara ikasle gehien biltzen dituen herria**

Artxiboa

### ZUBIETAKO ETXEETAN IKASLE AUNITZ IAZ

1986an sortu zenetik programa honetan 1.161 familik eta 2.091 ikaslek parte hartu zute. Familia hartzaileei dagokienez, joan den urtean 97 familiak 209 egonaldi eskaini zituzten. Lurraldeka banatuta, gipuzkoarrak ziren %60,7, nafarrak %24,3, bizkaitarrak %8,5, Iparraldekoak %5,2 eta arabarrak %1. Iazkoan, sei herritan bildu ziren programan parte hartzen duten familien erdiak eta egonaldien %55a (Errezil, Orio, Azpeitia eta Aia Gipuzkoan eta Zubieta eta Betelu Nafarroan). Ikasleei dagokienez berriz, iaz gehienak bizkaitarrak ziren (%73,4), Arabakoak %11,4, Gipuzkoakoak %9, Nafarroakoak %3,6 eta Iparraldekoak %2. Hirutik bi baino gehiago emakumeak ziren eta adinez 18 eta 32 urte artean zeuden ikasle ia guztiak. Euskara mailari begiratzen badiogu, ikasleen laurden bat 8. urratsean zegoen; 9 eta 12. urrats bitartean %43 eta %17a EGAduna zen.

ERREPIDEAK

## Nafarroako Gobernuak ez du Leitzarango autobiako eta N-1eko peajea onartzen

*«Nafarrok ederki aski ordaindu dugu Leitzarango autobidea»*. Horixe izan da, Jose Ignacio Palacios, Nafarroako Gobernuko Herrilan saileko kontseilariak, Roman Sudupe Gipuzkoako Diputatu Nagusiari emandako erantzuna. Azken hau, Leitzarango autobidean nahiz N-1 errepidean peajea jartzearen alde azaldu baita.

Herrilan kontseilariaren ustez, autobian bidesaria jartzea konstituzioaren aurkakoa izan daiteke, *«ez baitago bertze alternatibarik eta horrek zirkulazio askea mugatzen du»*. N-1 errepideari dagokionez, *«Madriletik Irunera, harrigarria da probintzia bakar batean bidesaria ezarri nahi izatea»*.

Carlos Garaikoetxea, EAko lehendakariak, bere aldetik, zera erran du: Gipuzkoako Diputazioko Herrilan saila beraien eskuetan dagoen bitartean ez dela bidesaririk ezarriko autobian. Iruña eta Irurtzun arteko bidesaria kentzea ere eskatu du.

koxkonta
SAGARDOTEGIA ZABALIK

Paregabeko idi-txuletak
Deitu erreserbak egiteko
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

Errekalde ostatua
Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak
Tfnoa: 630259 - BERA

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

Dia %
Autozerbitzua deskontua
Hamabostero ofertak
Zatoz eta ikusi
Eztegara, 6
✆ 63 14 03 • BERA

## BERA

# Aurten 8,7 milioi bideratuko dira kulturarako, iaz baino 2 gehiago

### Kopuru hori eskas gelditiko balitz kreditu bat eskatuko litzateke

ASIER GOGORZA

Martxoaren 5ean egindako Udal batzarrean aurten kultur aktibitateetarako gordeko den dirua finkatu zen, 8, 7 milioi hain zuzen ere. Joan den urteko aurrekontuetan baino 2 milioi gehiago erabiliko dira, eta beraz, erran daiteke Kultur Batzordeak eginiko proposamenak eragina izan duela aurrekontuetan. Kultur Batzordeak aurkeztutako proiektu guziak finantziatzeko diru gehiago behar balitz, ordea, kreditua eskatuko luke Udalak.

Herriko kultur talde desberdinak biltzen dituen Kultur Batzordearen bilkura, bertzalde, astearte honetan egin da, baina hondarrerako kontuak nola gelditu diren ezin dizuegu erran, lerro hauek idazterakoan ez baikenuen horko berririk. Jakin badakigu, hala ere, urte osoko kultur eskeintza bilduz triptiko bat karrikaratu nahi dela, herritarrek informazio xuxena izan dezaten. Hurrengo TTIPI-TTAPAko alean emanen dizuegu gai honi buruzko informazio gehiago.

### Administrari laguntzailea

Udalean eta Musika Eskolan administrari laguntzaile lanak egiteko pertsona bat hartzea erabaki du Udalbatzarrak. Langile hori lan-legepeko kontratu batekin hasiko da lanean (ez funtzionaria), lau orduz Herriko Etxeko dirugordailuan eta bertze lauz Musika Eskolan.

### Euskal Herriko Mendi Bizikleta Itzulia Beran?

Udalari 650.000 ptako dirulaguntza eskaria jaso du, uztailean Euskal Herriko Mountain Bike itzuliaren etapa bat Beran egiteko. Eskeintza onartu edo ez Gure Txokoa edo Club Ciclista Beratarraren esku uztea erabaki du Udalak.

### Margo ikastaroak

Kika Sastre hondarribitarraren eskutik, oleoan pintatzen ikasten ari dira 15 bat lagun. Ikasturteak irauten duen bitartean asteazkenero ematen ditu haur, gazte nahiz helduei zuzendutako klaseak, irailetik ekainera, alegia. Ikastaroa ongi akautzeko erakusketa bat egin ohi dute ikasleen koadroak zintzilikatuz.

Bertzalde, kolore eta formen inguruko kontzeptu basikoak lantzen ditu 7-8 haurreko talde batekin.

Orain dela 8 urte ikastaroarekin hasi zenean, Musika Eskolako ganbaran aritzen ziren Kika eta bere ikasleak, bainan gaur egun Herriko Etxean lokal bat utzi die Udalak.



### Barojatarrak eta 98ko belaunaldia

Aurten 98ko idazle belaunaldiaren lehen mendeurrena betetzen dela-eta, irailean burutuko diren hitzaldi sail bat antolatuz omendu nahi izan dute Pio Baroja idazle famatua.

Haren iloba den Pio Caro Barojaren proposamenari segituz, zenbait kazetari eta idazle ekarriko dituzte Berara, 98ko belaunaldiaren inguruko solasaldi eta mahainguruetan parte hartzera.

Bertzetik, Kultur Etxeari Pio Baroja izena jartzea ere proposatu dute.

## flash

**Itoitzekiko...**
Elkartasuna taldeko kide den Gabriel Unsion beratarra bertze sei lagunekin batera atxilotu zuten joan den astean Iruñean, Diputazioko lorategian dagoen sekuoiara goitzeagatik. Itoitzeko obretako kableak moztu zituzten solidarioen epaiketa salatu nahi izan zuten horrela.

**Irakasle berriak**
Musika Eskolan klaseak emateko hiru irakasle berri hartu dituzte, eta bertze hiru plaza atera dira lehiaketan, klarinete, saxo eta txistu irakasleentzat. Irakasle berriak Juan Karlos Piñuela (gitarra), Urko Arozena (perkusioa) eta Iker Sanchez (tronpeta) dira.

**Batzar...**
Orokorra izanen dute bihar, martxoak 13, Gure Txokoako bazkideek. Lehendabiziko deialdia ilunabarreko 8etarako egin dute, jendea elkartzeko, eta bigarrena ordu erdi geroago, bilkura hasteko.

**'Alkaiagatik...**
Berarat' ura ekartzeko Antonio Suescun injineruaren proiektua ahobatez onartu du Udalak. Lanen aurrekontua 14,5 milioikoa da eta lehiaketa bidez aukeratuko da obren egilea.

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxozgarbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz.
**Termita eta Polillen kontrako tratamendua**
BERA DESINFECCIONES
✆ 63 01 55
BERA

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • ✆ 63 00 83 BERA

## LESAKA

# Herri Laisterketaren 6. edizioa martxoaren 22an izanen da

Joan den urtean 559 korrikalari aritu ziren proba honetan

AITOR AROZENA

Igande honetan zortzi, martxoaren 22an, burutuko da Batzoki Elkarteak, Lesakako Udalaren, Nafarroako Rural Kutxaren eta zenbait banketxe, ostatu eta denden laguntzaz antolatutako Herri Laisterketaren seigarren edizioa. Probak goizeko 9,50etan hasiko dira, zazpi urte bitarteko haurrek plaza inguruan eginen duten laisterketarekin (100 m.). Hortik aitzinera, adin guzietako neska-mutikoek parte hartu ahal izanen dute zirkuito ttikiaren inguruan eginen diren laisterketetan.

### PROBA NAGUSIA EGUERDIKO 12,30ETAN

Eguerdiko 12,30etan proba nagusia abiatuko da. Kadete mailako neskek itzuli bat eta mutilek bi eman beharko dizkiote 2 kilometroko ibilbideari. Junior mailako neska-mutikoek eta senior eta helduen mailako emakumeek hiru itzuli eginen dute eta senior eta heldu mailako gizonek, lau itzuli, 8 kilometroko laisterketa burutuz.

Joan den urtean, Rafa Maritxalar herritarra suertatu zen irabazle maila nagusian. Azpimarragarriena, halere, kirolarien partehartzea izan zen, 559 korrikalari aritu baitziren.

Antolatzaileek adierazi dutenez, froga honetan parte hartuko duten kirolari guziek kamiseta eta diploma bana jasoko dute oroigarri gisara. Eraberean, partehartzaile guzien artean sariak zozketatuko dira. Infomazio gehiagorako 948 627 522 edo 948 637 948 telefonoetara deitu (Julen).



**Ehun urte bete ditu Agustina Lukanbiok**

Arantzako Errotan sortu eta azken 28 urtetan Lesakan bizi den Agustina Lukanbio Lazkanok ehun urte bete zituen otsailaren 24an. Bederatzi seme-alaben ama, 18 iloben amona eta 7 birloben birramona da Agustina. Famili haundia izaki, urtebetetze bazkarian bere seme-alabak eta hauen senar-emazteak bakarrik bildu ziren etxean, azken lauzpabortz urtetan ez baita etxetik ateratzen. Gorraize pixko bat izan arren, osasun ederra du Agustinak.

## flash

**San Fermin**

Jubilatu Elkarteak Aitaren Eguna ospatuko du martxoaren 19an, afari baten bitartez. Gaueko 9etan izanen da erretiratuen egoitzan eta txartelak lehenbailehen hartu behar dira. Joan den astean Xabierko gaztelura joan ziren autobusean.

**Obra-zuzendari izendapenak**

Hirurteko Planean onartutako lanen obra-zuzendariak izendatu ditu Udalak. Izotzaldea auzora urhornidura sarea egiteko lanen zuzendariak Eduardo Satostegi eta Jorge Villar izanen dira. Frain auzoko bideen 2. fasea Fernando Oroz eta Jorge Villarek zuzenduko dute eta Onin errekan zubi berria egiten, Pedro eta Jokin Pastor izanen dira zuzendari.

## Beti Gazte elkartearen urteko batzarra ortziralean eginen da

Ortziral honetan, martxoak 13, arratsaldeko 7,30etan lehen deialdian eta 8etan bigarrenean, eginen du Beti Gazte elkarteak urteroko batzar orokorra bere egoitzan.

Bilera, joan den urteko akta irakurriz hasiko da. Gero, iaz egindako ekitaldiak eta kontuen balantzea aurkeztuko da. Aurtengorako prestatutako ekitaldien eta aurrekontuaren berri eman ondotik, Mastegi udal futbol zelai berriari buruzko informazioa emanen da. Zuzendaritza Batzordea aukeratzeko ere probextuko dute batzarra Beti Gaztekoek, baina hori baino lehen, elkarteak dituen bi eskaera judizialei buruzko informazioa ematen zaie bazkideei. Izan ere, konbentuko rokodromoan eta mendi bizikleta proba batean gertatutako bi istripuren ondorioz, elkartearen aurkako salaketak aurkeztu baitira. Bilera akautzeko, beti bezala, eskaera eta galderen txanda izanen da.

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
✆ 627573 • LESAKA

ANA
janaridenda
Bittiria, 41 • ✆ 63 79 44
LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

Lurrindenda
Marian Mendiberri
Estetika
Beheko Plaza 8 ✆ 637791 • LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

## ETXALAR





Iñauteek mozorro ederrak ikusteko aukera utzi digute. Musikak ere ez du hutsik egin Pello

# Ortzegun Gizenak eta Iñauteak espektakulu politak eskeini dituzte

Prestaketa lanetan aritutakoak dira nabarmentzekoak

PELLO APEZETXEA

Ohituta bezala gaude, dagoeneko, haurrek auzoz-auzo antzerki lanak eskeintzea, eta ez gara, behar bada, horrek eskatzen duen lanaz ohartzen. Urtero antzerki ezberdinak aurkitu, ikasi eta prestatu, Landagain Eskolan egiten den lana, ez da txantxetako gauza. Eta berdin erran behar dugu helduek azken urteotan egiten dutenaz. Norbait mugitu, norbait saiatu, eta horrela ikusten ahal dugu herrian sortzen den giroa. Aurten, herrian hain berezia den sarezko ehizari buruzko ikuskizuna antolatu zuten egun nagusian, asteartean, ondotik heldu zen 'Aita santu'aren bedeinkazio guziekin.

### BAZKARIEK EZ ZUTEN HUTSIK EGIN

Bazkariaren ohiturak tinko irauten du. Gazteak eta ez hain gazteak, inauteetan otordu on baten inguruan biltzen dira, eta, oraingoan ere, bildu ziren. Asteburuan eta astearen hasieran jatetxe guziak prest zeuden. Larraburuan ere erretiratuentzako aukera izan zen, beti bezala.



Hauren antzerkia ikusgarria izan zen Pello

### Zentralak irekitzeko baimenik ez

Zentraletan hainbat berritze eta egokitze lan burutu dute azken urteetan, gaineko zentralean, batez ere. Orain legezko baimena eskuratu gabe dabiltza, oraindik obraren bat egiteko dutelako, hala nola, gaineko kanalaren zati bat estaltzea.

### Hamar egunez bortz hildako

Hilabetetan inor hil gabe, eta otsailean, hamar egunez, 5 joan zaizkigu. Gripearen eraginez , ia-ia aio erran gabe, ixilean joan zaizkigu, nahiz eta adinean aintzineratuak izan, ia denak.


«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

ZALAIN
JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
✆ 63 11 06
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria, 67 - ✆ 637264

LEGARRA
Legarrea, 9 • ✆ 63 70 30 • LESAKA
IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU
• Liburuak
• Papertegia
• Tabakoa
• Plastifikazioak egiten ditugu
• FAX publikoa
• Enkuadernatzeak
• Inprenta lanak



MARTIKO
Gure baserrietako produktuak
✆ (948) 63 07 00 • Fax 63 12 13
Zalain Poligonoa, BERA

## IGANTZI

# Joan den hilabetetik badute Berrizaundarrek kapera berria

### Hirurogei lagun bildu ziren Biltokiko urteko batzarrera

OSKAR TXOPERENA

Errana genuen aintzin horretan Berrizaungo auzotarrek, aspaldiko urtetan iganderoko meza entzuteko lekua izan den Santzenea etxeko kapera libre uzteko eskaria hartua zutela. Segituan mugitu eta auzoko eskola izan zeneko lokala aukeratu zuten kapera berria egiteko. Negu gehientsua pasatu dute lanean, teilatua moldatzen, barreneko paretak txukuntzen, pintatzen... eta aski polita gelditu zaiela ezin ukatu. Lanak egiteko milioi erdia hurbil erabili behar izan dute, kanpoko inongo laguntzarik gabe, lehen auzoan bizitutakoena izan ezik. Lehendabiziko meza otsailaren 8an ospatu zuten, eta ondotik, aunitz estimatu duten hameketakoa eskeini zien herriko apezak auzotar guziei. Aunitz gostatzaie egitea, baina, gostatakoa gehiago estimatzen dela da errana.



Aski polita gelditu zaie Berrizaundarrei kapera berria — Argazkiak: Oskar

### Batzorde berria Biltokin

Herriaren herena baino gehiago –217 bazkide– biltzen duen Biltoki elkarteak 60ren bat lagunekin egin zuen otsailaren 28ko batzar nagusia. Biltoki-ttikiren gaia izan zen eztabaidatuena, bertze gainekoak arin-arin joan ziren eta. Aipatutako horretan, gazteen gaiez interesatuta dauden talde eta elkarte ezberdinak bilduko dituen lan-taldea antolatzea erabaki zuten bazkideek.

Azkenerako utzia zegoen batzorde edo junta berritzea. Bortz dira joan den urtean aukeratuta bertze urtebetez segituko dutenak: Jaione Sein, Ana Iturbide, Jabier Gerra, Patri Arburua eta Mikel Eugi. Orain aukeratutakoak eta bi urtez lanean arikodirenak berriz: Itziar Iguzkiagirre (lehendakaria), Juankar Unanua, Amalia Sein, Korpus Etxeberria, Roberto Txoperena, Mª Paz Petrikorena eta Angel Mª Irigoien.

## flash

**Haurren harat-honatak**
Joan den astean Iruñeko Planetarium ikusten egon ziren eskolako 1, 2 eta 3 mailako haurrak, Izar Eskola kanpainaren barrenean. Martxan daude, bertzalde, larunbatetako eskolaz kanpoko aktibitateak. Astero ordu pare bat pasatzen dute 21 haurrek Itziar eta Amadeorekin.

**Kinto Besta**
Beti San Jose inguruan egiten omen dute eta aurtengoan martxoaren 21a berezi dute 1944an jaiotakoek beraien kinto besta ospatzeko.




© 631076 • BERA

CONSTRUCCIONES MECANICAS BERRIZAUN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • © 627572 • Faxa: 637313


EKAITZA kafetegia
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Lagunekin elkartzeko toki egokia
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 LESAKA



LESAKA

MARTIN MUSIKA ETXEA

MARTIN MUSIKA ESKOLA
✔ 2. eskuko akordeoien salerosketa
✔ Marka eta modelo guziak moldatu eta afinatzen ditugu
✔ Akordeoiaren osagarri guziak (korreak, fundak, partiturak...)
✔ Edozein musika tresna
Zabalik astearte, asteazken eta ostiraletan, 5etatik 8etara
✔ Trikitixa
✔ Panderoa
✔ Kitarra
✔ Pianoa
✔ Solfeoa
Bittiria, 6 • LESAKA • © 948 637527 - 943 692 435


LANCHAS
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura Orokorrak
Bera © 630735
Irun © (943) 622305

## ARANTZA

# Baserrien errotulazioa egiteko laguntza nahi du Euskara Mankomunidadeak

UEMA Eguna antolatzeko bigarren bilera larunbat honetan

ELIXABET ETA GARBIÑE

Auzoz auzo, baserrien izenak, bideak eta baliabide turistikoen informazioa emanen duten panelak jartzeko asmoa duela eta, laguntza eskatu die herritarrei Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak. Talde bat osatu nahi da, auzo horietako informazioa biltzeaz gain, panelak non paratu erabakitzeko. Parte hartu nahi duen jendeak Herriko Etxera jo behar du edo 634125 telefonora deitu.

Bortzirietako gainerako herrietan lan hau eginxea badago ere Arantzan oraindik dexente aitzindu behar da. Nafarroako Gobernuko Turismo Sailan dirulaguntza eskatzeko intentzioa ere bada, baina horretarako baliabide turistikoen informazioa (kisulabeak, etab...) ere eman behar da panel horietan.



Auzoz auzo, informazio panelak paratu nahi dira Artxiboa

### UEMA Eguna antolatzeko bilera

Maiatzaren 24an Arantzan ospatuko den Udalerri Euskaldunen Mankomunidadearen (UEMA) Eguna antolatzeko bigarren bilera eginen da larunbat honetan, martxoak 14, arratseko 8etatik aitzinera Herriko Etxean.

Lehendabiziko bilera otsailean egin zen eta partehartzea haundia izan bazen ere, agertutako gehienak elkarteren baten izenean joan ziren (Ekaitza, Guraso elkartea, Gazte Asanblada...). Egun honen antolaketan ahalik eta jende gehienaren laguntza beharrezkoa izanen denez, deialdi zabalagoa egin nahi da, edozein pertsona agertu dadin.

### Bideen moldaketa Hirurteko Planean

Nafarroako Gobernuak, Toki Azpiegituren 1997-1999 Hirurteko Planean euriteek hondatutako Azkilarrea, Arostegiborda, Agurreka, Bordalarrea, Olaberri eta Arizpeko bideen moldaketa egiteko 2.394.383 pezetako behin behineko inbertsioa onetsi du.

### Apittako bidea moldatu dute

Bide moldaketekin segituz, dagoeneko eginda daudenak aipatuko ditugu. Apittako bidea berritzen zenbait hilabetez aritu ondotik, orain itxura berritua ageri da.


GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ✆ 63 07 63

☎ 948 630 800
ALZAGA
auto escuela
KANTONBERRI, 2 - BEHEA · BERA · (lehen Artleda)
• Gidatzeko karneten tramitazioa
• Karneten berritzea


DROGUERIA MOLINERO
• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •
*Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak*
Eztegara 19 • ✆ 63 02 40
BERA

Kulturkari
Inprenta lanak egiten ditugu
• Kartelak
• Boletoak
• Faktura taloiak
• Bisita txartelak
• Aldizkariak
• ...
Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!
✆ 631188

# SUNBILLA

# Artisautza ikastaroa bertze hilabete batez luzatuko da

## Bertzalde, Zubizarko bidea moldatuko da

JAIONE ETA ALBA

Artisautza ikastaroaren barnean aski lan politak egin dituzte herriko emakumeek. Hilabete inguru iraun du ikastaro honek eta hagitz gustora aritu direnez, bertze hilabete bat luzatu dute. Beraien lanak ikusgai egon dira Asteburu Kulturalean, Ulibeltzak elkartean.

### Asteburu Kulturala

Aste hondar honetan ospatu da Antzakaitz taldeak antolatutako Asteburu Kulturala. Hurrengo alean berri zehatzagoa emanen dugu.

### Sagardotegira bidaia

Herriko hogeita bortz gazte Astigarragara joan ziren otsailaren 27an. Autobusa antolatua zuten eta arras giro jatorra sortu zuten sagardotegian. Etxerako presa haundirik gabe ibili ziren, goizeko zazpiak aldera bueltatu omen ziren eta.



**Zubi ondoko makalak bota dituzte**

Herriaren sarreran, zubi ondoan zeuden txopo edo makalak bota dituzte. Ondorioz, inguru horren itxura arrontean aldatua ageri da. Argazkia: Alba

### Zubizarko bidea moldatuko da

Bidasoa eta Berroarango Mendien Batzordeak Sunbillako Zubizarko bidea moldatzeko egin beharreko inbertsioa onartu du Nafarroako Gobernuko Leku Administrazio Sailak, Hirurteko Azpiegitura Planaren barnean. Lanaren aurrekontua 12.491.598 pezetakoa da eta Iruñetik etorriko den laguntza, berriz, 8.744.119 pezetakoa.

# MALERREKA

## flash

**Ezkurrako Kasimiro medikua** martxoaren 3an hil zen, 82 urte zituela. Bera Tolosan sortua zen, baina 57 urtez bizitu zen Ezkurran. Ezkurrako medikua izateaz gain, Eratsun, Zubieta, Ituren eta Elgorriagan ere lan egin zuen. Arras fededuna zen eta bere eguneroko paseoan errosarioa errezatzen zuen.

**Beintza-Labaiengo** ur-hornidura eta saneamendu sareak berritzeko lanak 1997-99 Hirurteko Plan Bereziaren barnean sartu ditu Nafarroako Gobernuak. Iruñetik 123.871.000 pezetako inbertsioa eginen da aurten.

BEINTZAko OSTATUA
Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA-LABAIEN

ZURE EZKONTZA EGUNA MUSIKAREKIN ALAITU NAHI BADUZU HEMEN GAUDE ZURI ALAITZEKO
Jalisko Band
Tel: 450590 Jalisco Tel: 450240 Juan Carlos

GAZTANDEGIA
LIZUN
Etxeko Ardi Gazta
Petxenekoborda • Tfnoa: 45 08 62 • SUNBILLA

Toldos BAZTAN, S.L.
TOLDOEN SALMENTA, ALOKAIRUA ETA KONPONKETA
• Kamioi eta industri-furgoneten errotulazioa (Errotulazio zerbitzua)
• Etxerako toldoak, eguzkitik babesteko (manualak edo elektrikoak)
• Toldo korrederoak
• Bolketeendako sareak
• Kamioiendako klase guzietako toldoak
• Piszina estaltzeko sareak
• Trinkajetarako Slingak
TOLDOS BAZTAN, S.L.
Alkaiaga industrialdea, Baldrun 8
LESAKA (Zalain industrialdearen ondoan)
Tel. 948. 63 10 03
Mug.: 929 01 59 23

Merkealdiak
Hari Cruz
LENTZERIA
Parrokia 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

ttipi-ttapa
6.500 harpidedun
23.000 irakurle
Zure publizitatea etxe xoko guzietan
✆ 63 11 88

## DONEZTEBE

# Udal ordenantza berriak behin betikoz onartu dira

### Kirol instalazioak erabiltzeagatik ordaindu beharrekoa zehaztu da

TXEMA ALDABE

Udalak onartu ditu ordenantza fiskal berriak, horretarako zabalik izan den epean kexarik ez baita aurkeztu.

Bertzeak bertze, udal kirol eta kultur instalazioak erabiltzeko prezioak arautu dira. Igerilekuetan sartzeko, uda osorako 5.250 pezeta ordaindu beharko dute 18 urtetik goitikoek; 3.675 pezeta 12 eta 18 urte artekoek eta 1.575 pezeta 4 eta 12 urte bitartean dutenek. Hilabeteko prezioak 3.675, 2.625 eta 1.050 pezetakoak izanen dira eta egunekoak, azkenik, 475, 370 eta 160 pezeta.

Frontoian aritzeko, orduko 650 pezeta ordaindu beharko dira eta argia piztuz gero, 1.300. Kultur Etxea erabiltzeko, 500 pezeta ordainduko dira orduko –1.000 pta berogailua piztekotan–. Zinearen sarrera 500 pezetakoa izanen da. Udal musika eskolako ikastaro ezberdinetan izena emateko ordaindu beharreko matrikulen berri ere ematen da ordenantzetan.



**Karrikan salmenta postuak jartzeagatik, komertzioren bat ireki edo eskuz aldatu nahi izanez gero, ur-zikinak garbitzeagatik edo kamioiak aparkatzeagatik ordaindu beharrekoa ere zehaztu da ordenatza berrietan.**

Etxerako ura, 37 pezeta ordainduko da metro kubikoa eta industriarako erabiltzen dena, 42 pezeta. Honetaz gain, ur-hornidura zerbitzua emateagatik, kontadorearen neurriaren arabera ordaindu beharko da.

### Erreka Eskubaloi taldeak...

galdu ditu liga irabazteko aukera guziak eta igotzeko sektorean ezin izanen du jokatu. Dena den, Errekak denboraldi ona egin du, uste zutena baino hobea. Hain goiti iristeak, Nafarroan 5. edo 6. taldea dela erran nahi du, kategoria guziak kontutan hartuz. Beraz, ez da txantxetako gauza. Liga hau akitu ondoren, Kopa jokatuko dute. Zorte pixka batekin Ohorezko Mailan dagoen talderen bat ikusteko aukera izanen dugu Donezteben.

Errekako jubenilak ere jokatzen segitzen dute eta fase hau akitzeko 4 partidu falta zaizkie. Hasieran joku haundirik erakutsi ez bazuten ere, aintzinera joan ahala aunitz hobetu dute. Azkeneko bortz partiduetatik bortzak irabazi dituzte. Fase honetan lehenbizikoak edo bigarrenak izatea espero dute.

## flash

**Udal administrari laguntzaile** lanposturako Mª Jose Zarranz Oteiza izan da aukeratua, horretarako frogak egin ondotik. Lanpostu hau fijoa izanen da. Lehen ere aritua da Mª Jose lan horretan. Azkenean, denetara 72,95 puntu lortu zituen eta bera bakarrik izan zen azken frogara pasatu zena, elkarrizketa frogara, alegia. Bere ondotik, Itziar Goñi, Izaskun Abril, Belen Nuin, Itziar Barrinaga, Kristina Eguzkiagirre eta Mª Pilar Inda gelditu ziren.

**Ebasketak ostatuetan**
Azken asteotan hainbat ebasketa gertatu dira Malerrekako zenbait ostatuetan. Gehienetan sistema berdintsua erabiltzen dute ebasteko: mutil bat ostatuan sartu, ogitartekoa eskatu eta prestatzen duten bitartean bere lagunak etxera sartzen dira. Bertzalde, berriki guardiazibilak ebasketa hauekin zerikusirik ez zuen bertze talde bateko partaideak ere atxilotu omen ditu.


IBARROLA
HAURRENDAKO ARROPA MERTZERIA
Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE

SANTAMARIA
Jatetxea
Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 450 133
451 541
Faxa: 450 334
DONEZTEBE

## MALERREKA



Legasako Xanpale taldea, final laurdenetan Narbarten kontra aritzekoa zen: Pedro Miguel Castilla, Xuper Zarranz, Asier Hernandorena, Aitor Zimarra, Luis Miguel Lakar, Aitor Zelaieta, Elias Castilla, Iñaki Zelaieta eta Jose Jabier Telletxea.

Argazkia: ZALDUA



BKZ taldeak Kaifas taldearen kontra jokatu du final laurdenetan: Pello Barberena, Martin Barberena, Zarbo Ibarrola, Martin Mendiburu, Mitxek Ibarrola, Fernando Jubera eta Mattari Altzuarte.

Argazkia: ZALDUA



Arraiozko talde gazteak final laurdenetan Basaburua izan du aurrez aurre: Jose Mª Indart, Xabier Karrikaburu, Enrike Bengoetxea, Juan Luis Laurnagarai, Ismael Zubieta, Jabier Gamio, Ketxus Laurnagarai, Iñaki Garmendia, Juan Bautista Agerrebere, Ion Gamio eta Angel Bergara. ZALDUA



Ituren eta Zubietako jokalariekin osatutako Garardi taldea, dagoeneko kanporatua dago: Oskar Telletxea, Tomas Rivas, Igor Babaze, Jabier Iñigo, Jabier Bereau, Fermintxo Etxekolonea, Jon Mutuberria eta Fermin Ariztegi. ZALDUA

# Futbito txapelketa azken txanpan sartua

### Finalerdiak igandean eta finala San Jose egunean

TXEMA ALDABE

Pasa den asteburuan jokatzekoak ziren Baztan-Bidasoako futbito txapelketaren final laurdeneko partiduak. Kanporaketa horretara ailegatuak ziren Arraioz, Basaburua, BKZ, Kaifas, Xanpale, Narbarte, Ajax Pino eta Bar Titi taldeak. Hauen arteko irabazleek igande honetan, martxoak 15, jokatuko dituzte final erdiak Doneztebeko frontoian. Partiduak arratsaldeko 6etan eta 7etan jokatuko dira. Finala, berriz, datorren ortzegunean, martxoak 19, jokatuko da, San Jose eguneko besta aprobetxatuz. Azken partidu hau ere Doneztebeko frontoian jokatuko da, arratsaldeko 7etatik aitzinera. Txapelketak orain arte nahiko ikusmin sortu badu ere, zer erranik ez azken norgehiagoka hauetan.



Narbarteko taldeak Bertizaranako derbia jokatu du final laurdenetan: Basilio Juanotena, Iñigo Telletxea, Mikel Huarte, Juan Pablo Agirre, Miguel Jabier Agirre eta Patrizio Aginaga. ZALDUA

# MALERREKA

## Hiru pisten zolaberritze lanerako lehiaketa Donamarian

TTIPI-TTAPA

Hiru pista ormigoiarekin zolaberritzeko lehiaketa deialdia egin du Donamariako Udalak. Hasierako aurrekontua 17.060.831 pezetakoa da. Proposamenak martxoaren 23ko eguerdia baino lehen aurkeztu behar dira Udaletxean.

Pista bat Errekartea, Zanibarria eta Agerrekobordara doaiena da, bertzea Arkaitz ainera ailegatzen dena eta hirugarrena Gaztelun, Zenberroara iristen dena. Lan hauek Hirurteko Azpiegitura Planean sartu ditu Nafarroako Gobernuak. 11.680.576 pezetako inbertsioa eginen du aurten.

## Mus txapelketaren finala larunbatean

Larunbat honetan jokatuko da Donamariako Ostatuan mus txapelketaren finala. Larunbatean zortzi, berriz, martxoaren 21ean afaria izanen da, txapelketa parte hartu duten guziei zabaldua. Afalondoren sariak banatuko dituzte.




## Kubarako bidaia eman du Bertizko Partzuergoak

Bertizko Turismo Partzuergoko Merkatarien elkarteak Kubara antolatutako bi lagunendako bidaiaren saria Elizondoko Txusmi Egurrola eta Isabel Olabe senar-emazteei egokitu zaio. Doneztebeko Amaia lurrindenda-ilepaindegian saldu zen eta bertan jaso zuten bidairako txartela.

Argazkia: MENA

## Edateko ura tratatzeko 74 milioi pezetako inbertsioa onartu du Nafarroako Gobernuak

Malerrekako Mankomunidadeak edateko ura tratatzeko araztegia egiteko lana, Hirurteko Azpiegitura Planaren barnean sartu du Nafarroako Gobernuak. Proiektu hau NILSA erakundeak kudeatuko du, Ituren, Elgorriaga, Doneztebe eta Sunbillako Herriko Etxeen laguntzaz. Lanen aurrekontua 74.717.332 pezetakoa da eta Nafarroako Gobernuaren laguntza, berriz, 58.084.178 pezetakoa.

Ura tratatzeko planta hau, *«herri hauetarako nahikoa izanen den kalitatezko ura ekartzeko egiten ari diren lanen bigarren fasea da»*, Josetxo Iparragirre Iturengo alkatearen erranetan.

Lehen fasean tuboa sartu zen Aurtiztik Doneztebera, 120 milioiko gastuarekin. Araztegia *«Aurtiztik goitixeago egiteko asmoa dago eta proiektua zehaztua dago jadanik»* Iparragirrek dioenez.

## flash

### Oihan probetxamendua Iturenen

Iturengo Herriko Etxeak Elkarrikoa inguruan dauden 195 haritz amerikano aprobetxatzeko enkante deialdia egin du. Guzira 130,220 m³ zur eta 21,740 m³ su-egur emanen dute eta hasierako prezioa 1.333.420 pezetakoa da. Proposamenak martxoaren 24ko eguerdia baino lehen aurkeztu beharko da udal bulegoetan.

### Ibintza ikastaroak

Joan den abenduan egin zuten lehenengo ikastaro eskeintza Iturengo Ibintza Kultur Taldekoek. Oraingoan, ikastaroa, martxoa eta apirila bitartean burutuko duten Landare eta Lorezaintzari buruzkoa izanen da. Izena emateko, nahikoa da antolatzaileei aipatzea edo karteletan jartzea.

# BERTIZARANA

## Bake epailea aukeratzeko deialdia

Bertizaranako Herriko Etxeak, Bake Epailea eta bere ordezkoa aukeratzeko deialdia luzatu du. Kargu hau betetzeko interesatuta daudenak udal bulegoetan eskatu beharko dute, martxoaren 30eko eguerdia baino lehen.

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA
• Miopia
• Bista alfertua
• Estrabismoa
• Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK
• Bixkortzea
• Artritia, erreuma
• Artrosia, Lunbalgia
• Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

MAGNETISTA NATUROPATA
© (943) 62 30 55
San Marcial, 7-4 IRUN

ONDORIOETATIK INDARTZEKO
• Diabetia
• Asma
• Larru azaleko alergia
• Buruko mina
• Zizareak
• Oinen izerdia
• Prostata, etab...

ETXANDI TXOKO jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

Inportazioko bakailua
Bakailuak
Kalitate onena • Faroe irletakoa
BAKAILU GEZATUA BERE PUNTUAN
Enkarguak hartzen dira
Txingudi Merkatal Zentroa (Alcampoko kajen parean) • Tfnoa: 943-62 00 61
San Juan Plaza, autobus geltokian • Tfnoa: 943-62 71 31 • IRUN

## GOIZUETA

# Gazteen ispilu eta eredu den beteranoa

### Hamabost urte daramatza 'Olaso'k iñotetako mozorroen taldean

ESTEBAN AROZENA



Olaso baserriko Estanis Perurena taldean ezagutu ez duen mozorrorik ez zen aurtengo iñotetan Izkiña jatetxean elkartu diren berrogei lagunen artean, bera baitzen beteranoena, eta diferentzia haundiaz gainera.

Hamabost urte daramatza Olasok mozorro, hamazazpirekin hasi eta gaur egunera arte. Ibilbide honetako etenaldi bakarra soldaduskara eraman zutenekoa da.

Taldeko jende gehiena hogei-hogeita bost urte ingurukoa izateak ez du gehiegi estutzen Estanis. Halere, bere burua tokiz kanpo ez harrapatzeagatik edo, bere koadrilakoren batek lagun egitea asko estimatzen du, eta aurten Aitorek bete du, ezin hobeki gainera, eginkizun hau. Modu honetara, mozorrotan noiz arte jarraitzeko asmoa duen galdetu genionean ez zigun data zehatzarik eman, baina aurten hagitz ongi igaro duenez, hurrengo urteko partaidetza ere ia ziurtatuta omen dauka. *«Hortik aurrera XXI. mendea dator berehala, eta horreraino heltzea ez litzateke batere gaizki egonen»* gehitu zuen Olasok baikor.

Taldeko zaharrena eta beteranoena izan arren, inork ez omen ditu betetzen Estanisek baino zuzenago Karnabaletako eginbeharrak eta ordutegiak. Mozorrotan lehenengo aldiz aurten atera den 19 urteko herritar batek esaten zuen bezala, *«Olaso da zalantzarik gabe gazteok eredutzat hartu behar dugun mozorroa eta begiratu beharreko ispilua»*.



### Izaskun Bakero eta Rosa Mari Olaizola, berriz ere txapeldun

Izaskun Bakero eta Rosa Mari Olaizolak osatutako bikoteak irabazi du aurten ere emakumeen arteko paleta txapelketa, Jaione Jimenez eta Maria Apezetxearen kontra otsailaren 22an jokatutako partidu haundi batean. Edizio honetan parte hartzaileen kopurua jeitsi den arren, zazpi bikotek jokatu dute, maila haundiko partiduak ikusi ahal izanen dira eta txapelketaren iraupena ziurtaturik dago. Gainera, Udalaren babesa ere jaso du aurten, erakunde honek eman baititu lau finalisten trofeoak.

## ARESO

# Xexen-jatea egin zuten Larrea elkartean

### Agirre eta Lizaso zaharra aritu ziren bertsotan



### Larrea elkarteko mus txapeldunak

Txomin Gereño eta Joxe Saizar suertatu dira irabazle Larrea elkartean antolatutako mus txapelketan.

Argazkia: Juana Mari

JUANA Mª SAIZAR

Otsailaren 28an, larunbata, urtero bezala, Larrea elkartean xexenjatea izan zuten. Ehun bat lagun bildu ziren ospakizunean eta bapo jan ondoren, Lizaso eta Agirre bertsolariek beraien saioa eskaini zuten. Izugarrizko giroa sortu zuten, benetan saio ederra burutu baitzuten. Ordubata aldera, bertsolariek bukatu eta laister, dantzaldiari eman zioten txanda eta goizeko 6ak arte dantzari onenak aritu ziren. Indarrak berreskuratzeko, baratzuri zopa jan eta festari bukaera eman zioten.

### Sokatira taldea ederki ari da

Herriko sokatira taldea indarrean dabil. Pisu guzietan aurreko postuetan aritu bada ere, 600 kilotan onena izan zen bere multzoan, martxoaren 1ean Zanbranan egindako saioan. Larunbat honetan, Lesakan izan zuten 560 kilotako saioa. Ea txapelen bat lortzen duten!

## LEITZA

# Zahar Etxearen arazoa moldatzeko herri ekimen baten alde agertu da Udala

'Embalajes Erviti, S.L.' lantegia itxi da

JOSEBA AZPIROZ

Zahar Etxea edo geriatrikoaren inguruan izan dira zenbait proposamen, eztabaida, errekurtso, kexa, etab… Dakizuenez, Nafarroako Gobernua Beteluko udalaren proiektuaren alde agertu zen. Larraungo eta Lekunberriko Udalek erabaki hori errekurritu egin zuten. Seguru aski, errekurtsoa ikusi arte, ez da ez batean ez bestean eginen. Eta bitartean, zerbitzurik ez. Leitzako udalak zenbait arrazoiengatik errekurtsorik ez jartzea erabaki zuen, nahiz eta alegazioak aurkeztu. Gainera, herriari herri ekimen baten inguruan biltzeko proposamena luzatzen dio, fundazioa edo antzeko forma hartuz, herriko arazoari konponbide bat bertan bilatzeko. Probetxagarria izan dadila eta gure zaharren mesederako.



**'Reketeen' omenezko oroigarria txikitua**

Gerra Zibilean ibili ziren *requeteen* omenez Leitza eta Berastegiko mugan jarrita zegoen harrizko oroigarria txikitu zuten. Sabotaia egin zuenak, Egin egunkarira egindako deian azaldu zuen *«Euskal Herriaren subiranotasunaren defentsan eta gure herriaren eskubideen aurka ari izan den faxismoaren aurka»* egin zuela.

### Madazaien Bordako hondakintegia

Joan den astetik erabili daiteke Madazaien Bordako hondakintegi edo eskonbrera. Horrela, orain arte zegoen arazoari soluzioa emanen zaio urte batzuetarako. Eskonbrerara obra-hondakina besterik ezin da bota (ez zaborrik, ez altzari edo elektragailurik). Goizuetako kamioan, ezkerretara dagoen ormigonatutako lehenengo pistatik ehun bat metrotara dago kokatua.

Bestalde, baserrietan kontenedoreak jarri eta zaborra biltzen hasiko dira, azken udal batzarrean erabaki zenez. Biltzaileak baserrietara joateko prest azaldu dira, kamioiak buelta emateko lekurik baldin bada. Enpresa bakar bat da Larraun, Lekunberri, Areso eta Leitzako zaborrak biltzen dituena. Gaur egun, Leitzak berak bakarrik gainerako hiru herriak haina ordaintzen du, 11.700.000 pezeta. Hori dela eta, mankomunitatea sortzearen bideragarritasunaz aritu ziren batzarrean.

### 'Embalajes Erbiti' lantegia itxi da

*Embalajes Erviti, S.L.* enpresa itxi da. Olaberrikoek, Nafarroako Gobernuko Industria Departamentuan aurkeztu duten espedientea onartzen badiete, bertan ari ziren hamahiru langileen kontratuak deuseztuko dituzte. LAB eta ELA sindikatuko ordezkariak ados azaldu dira erabakiarekin, enpresak kontuak aztertu eta gero. Ia mende bat egon da enpresa hau Erbititarren eskuetan. Ola, zentrala, kobre fabrika eta gaseosa fabrika izan zen 1945. urte arte. Orduan, sute baten ondoren, zerra martxan jarri zuten eta 1970 aldera, enbalajeak egiten hasi ziren.

## flash



**Dabid Anaut euskara teknikaria**

Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko Leitza-Areso-Goizueta-Aranorako euskara teknikaria aukeratzeko frogak gainditu dituen bakarra Dabid Anaut izan da. Azterketara lau lagun aurkeztu ziren eta beste hiruak ez zuten froga teorikoa gainditu. Bigarren frogan, eskualderako programa idatzi behar zuen eta ondoren epaimahaiari ahoz aurkeztu. Hau ere, oso puntuazio onarekin gainditu zuen.

**Zinea**

martxoaren 13an, 10etan, *«Smila, misterio en la nieve»*. Martxoaren 15ean, 4,30etan, *«Fievel eta mundu berria»* eta 7etan *«Smila…»*. Martxoaren 20an, 10etan, *«Carreteras secundarias»*. Martxoaren 22an, 4,30etan, *«Ley y desorden»* eta 7etan, *«Carreteras secundarias»*.

Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu. Eta ezkontzea pentatu baduzu, harrituko zaitugu!
Basa Kabi
Tel. 510125 • Faxa: 610965
LEITZAko gaina

GAZTELU ITURGINTZA
KALEFAKZIOA
Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86 • LEITZA

# BAZTAN



**Mendigoizaleen omenaldia Manolo Induraini**

Martxoaren 1ean Baztango Mendigoizaleak taldeak berriki zendutako Manolo Indurain mendigoizaleari omenaldi ttiki bat eskaini zion Urbalko mendian, gorosti landare bat landatuz. Manoloren familiak ere parte hartu zuen ekitaldian

Argazkia: Baztango Mendigoizaleak taldeak utzia

## 25 milioi pezetako aurrekontua izanen du Iturri-Ederra elkarteak

Elizondoko uren kudeaketa egiten duen Iturri-Ederra elkarteak 25.781.108 pezetako aurrekontua izanen du aurten, urteko batzarrean erabaki zuenez. Uraren prezioa, hirugarren urtez segidan, bere horretan mantenduko da, metro kubiko bakoitzeko 18 pezetan, alegia.

Zuzendaritza Batzordeari dagokionean, Pedro Mari Esartek segituko du lehendakari gisara. Zuzen Karraskedo izanen da lehendakari ordea eta Jose Mari Karrikiri, bokala. Esartek berak argitaratutako liburu bat banatu zen bazkideen artean.

Momentu eztabaidatsuak ere izan ziren. Zenbaiten ustez, Salbideko ur-hartzea moldatzea (4,5 milioiko aurrekontua) ez da beharrezkoa izanen ur-biltegi berria egiten bada.




**Pedro Mari Esarteren liburuaren azala**

## flash

- **Arizkungo** Larrainkarrika eta Tximindo karriken arteko bidegurutzean ispilua paratuko dute.
- **Anizko** frontoitik Benta baserrira doaien bideko paretak moldatuko dira auzolanean. Balleko Etxeak materialean 250.000 pezeta emanen ditu.
- **Euskara Zerbitzuan** posta elektroniko zerbitzua martxan paratu da eta Internet sarera lotu da.
- **Baztan-Bidasoako** Emakume Kirolariaren Asteburua burutu da martxoaren 7 eta 8an Elizondon.

# Baztandarren Biltzarra uztailaren 19an eginen da

### Oraindik ez da egitaraua guztiz zehaztu

TTIPI-TTAPA

Gan den urtean, 33 urtez segidan egin ondotik ez zen Baztandarren Biltzarrarik ospatu. Aurten, uztailaren 19an ospatuko da Baztan eta inguruko hainbat jende elkartzen duen besta. Momentuz ez da egitarauaren berri ematerik, guztiz zehaztu gabea baitago oraindik. Hori bai, dirua lortzeko tonbola moduko bat eginen dute eta aurtengo ekitaldiaren berri emateko prentsaurreko bat eskainiko dute laister.

## Iruña-Behobia errepideko zenbait seinale euskaratuko dira

Iruña-Behobia errepideko seinaleak Euskara Legeari egokitzeko Baztango Balleko Etxetik egindako eskaria erantzuna jaso du Nafarroako Gobernutik.

Iruñetik erran dutenez, atzerriko izenak gazteleraz bakarrik paratuak daude, horregatik ez da *Frantzia* ageri. «Ceda el Paso» plakak kendu eginen dira bidea uzteko seinaletatik, ez baitira beharrezkoak. Obretako seinaleak eta N-121 errepidean barna dauden guziak euskaratzeko estudio bat burutzen ari omen dira Iruñean. Tuneleko argi-paneletan *Kontuz ibili* ere paratuko dute eta Kontrol Zentruan euskarazko kartela ezarriko dute.

JATETXEA
Tfnoa: 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

SASKAITZ fontanería calefacción
Empresa colaboradora de REPSOL BUTANO
Era guzietako instalazioak: Etxekoak, industrialak...
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

EUROPEAN VISION GROUP
BAZTAN OPTIKA
ORDUTEGIA:
Astearte eta ortziral goizetan, 10etatik 1,30etara eta asteazken arratsaldetan, 5etatik 7,30etara
Santiago, 33 (Baztan ostatuaren aitzinean) • ELIZONDO

## BAZTAN

# Odol-emaileen besta izanen da igande honetan

### Hogeita bortz emanaldi egin dutenei dominak eman zaizkie

JOSEBA IGARABIDE

Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko odol-emaileen besta ospatu da igande honetan, martxoak 8, Elizondoko Santxotena jatetxean.

Bazkal ondoren, Txuma Uriz delegatuak elkartearen kontu eta ekitaldien berri eman zuen. Gero sei domina ezarri zitzaien, dagoeneko 25 emanaldi egin dutenei: Arraiozko Miguel Zelaieta, Manoli Oteiza eta Mª Rosario Iturriria, Elbeteko Puri Goñi, Almandozko Juan Jose Oskoz eta Gartzaingo Mª Rosario Jorajuria. Aipatu behar da, urtero gehienez bi emanaldi egiten ahal direla eta bakoitzean litro erdi inguru ematen da.

### Emakumeen Eguna

Emakumeen Eguna dela eta Elizondon kalejira burutu zen, Egizan taldeak deituta, *«Etorkizuna gure esku, emakume bat lanpostu bat»* lemapean.

Lekarozen, bere aldetik, bazkaria egin zuten.



### Zuhaitzaren Eguna ospatu zuten ikastolan

Urtero bezala, Baztan Ikastolako guraso, ikasle eta irakasleek Zuhaitzaren Eguna ospátu zuten otsailaren 15ean. Eguraldia lagun izan zutela, jende aunitz hurbildu zen Bagordiko magalera naturari bere bultzadatxoa emateko asmoarekin. Denetara 150 bat zuhaitz landatu zituzten.

### Belateko tunelak zabaldu zirenetik laugarren istripua

Bertze istripu bat gertatu da Zozaiako bidegurutzean. Zozaia aldera sartzeko esperoan zegoen Patrola jo zuen frenorik gabe gelditu zen kamioiak. Gero, kamioiak pareta jo eta iraulia gelditu zen. Halere ez zen zauriturik suertatu. Kamioia Lleidatik Bretañara zoaien, konfituraz betea eta Patrolean, Nafarroako Gobernuarendako lanean ari zen argazkilari bat zoaien. Tunela irekiz geroztik laugarren istripu larria izan da.

Bertzalde, martxoaren 5ean inauguratu ziren Mugairiko semaforoak. Lan guziek sei milioi pezeta inguru gosta dira. Herrilan saileko Zuzendari Nagusia, Alvarez Miranda, inaugurazio ekitaldian izan zen eta Zozaia-Doneztebe errepide zatiaz ere aritu zen solasean.

## flash

**Elizondoko Lanbide Eskolako zozketa**

238 zenbakiari egokitu zaio Almandozko Beola jatetxean bi lagunendako afari. Bildotsa berriz, 3.604 zenbakiaren jabearentzat izanen da. Sariak jasotzeko 580012 telefonora deitu.

**Iturri-Ederra eta Landaberroako argindarra**

Balleko Etxeak Iturri-Ederra eta Landaberroa inguruetako elektrifikazio lanak Hirurteko Planaren barnean sartu du Nafarroako Gobernuak. Aurrekontu osoa 877.584 pezetakoa da eta Iruñetik 418.169 pezeta bideratuko dituzte. Gainerakoa partikularrek ordaindu beharko dute.

**Oronozen**

eskola egin behar dute, San Martin eskolatik hurbil. Enkantera atera da lana. Hasierako aurrekontua 40 milioi pezeta ingurukoa da. Bertzalde, Oronozen bertan, hildako suhiltzaileei omenaldia eskaini zaie igande honetan.


Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO

ZUBIRIA MINDEGIAK
• Etxeak apaintzeko landareak
• Baso landareak
• Bertako frutondoak
ARRAIOZ • NARBARTE
Tfnoak: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)
Faxa: 581274

MENDIALDE Jatetxea

Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. km.
AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - © 580313
ELIZONDO

OSKORRI liburudenda

• Liburuak-prentsa-mapak-gidak
• Argazkilaritza materiala
• Papertegia-inprenta
© 592245 • Petrinea • ORONOZ-MUGAIRI

## SENPERE






**Zikirolatz dantza taldeak 'Zingar eta arroltze' eskea egin zuen. Ihauteriak haur guzien besta dira.** Arg: Studio de la Nivelle

# Aurten ere ihauteriak biziki ederrak izan dire

Zingar eta arroltze eskatu zuten Zikirolatz dantza taldekoek

**FRANCK DOLOSOR**

Ihauteriak gero eta ederragoak izaten dire gure herrian. Jende gutiagorekin ere besta biziki polita ospatu da herriko elkarte batzuek antolaturik. Honako hauek, hain xuxen: Zikirolatz, AEK, Sanoki, Ikastola, Herriko Besta Komitea, Emak Hor, Kixka eta SPUC, Turisma Bulegoa eta herriko langileen laguntzarekin. Zorionak deneri eta milesker senpertarreri Zikirolatz dantza taldeko gazteen partez. Aurten ere ongi etorria izan dute Senpereko etxeetan "xingar eta arroltze" bildu dituztelarik.

**Doluminak**

Berriki Kilmen Madariaga, 4 urteko haurra zendu baita, doluminak familiari eta Zaldubi Ikastolako adiskide guzieri Oxtikonekoak eta TTIPI-TTAPAren partez.

## KULTURA

# Musika euskal presoen alde

Mokoka taldeak bultzatu du proiektua

Hogoi musika taldek *«Amnistia»* deitzen den diska atera dute preso direneri eta beren familieri sustengua erakusteko. Diska Baionan presentatu du Mokoka taldeak, proiektu hunen sortzailea baita (horko kidea da Serge Harisgain 'Gaxinto' senpertarra).

*«Amnistia»* diskan 20 kantu badire, Zebda, Portobello Bones, Negu Gorriak eta Mokokak berak emanik. Orain arte mila diska saldu badituzte, nahi lukete gehiago saldu ostatuetan ala Hego Euskal Herrian. Bilduko den dirua presoen familientzat izanen da, hauek gastu haundiak baitituzte bisitak egiteko.

Denbora berean, Mokoka elkarteak xedea du liburuxka bat banatzea frantses estatuan Euskal Herriaz. Hunen bidez, esplikatu nahi da nola bizi diren euskal preso politikoak eta beren senideek zer sufrimendu duten, giltzapean eta frangotan urrun atxikiak baitire.




**Berriki Baionan presentatu da diska berria. Horrat Parisetik etorria zen Serge Harisgain *«Gaxinto»* senpertarra, han bizi baita ikasle gisa**

## flash

**Kirol taldearen besta**

Pasa den larunbatean SPUC herriko kirol taldearen besta izan da Ibarrungo Inharrean. Elkarteak 395 lagun biltzen ditu, bortz sailetan banatuak: pilota, rugbia, eskubaloina, kanoa eta athletisma. Gan den larunbatean horko adiskide gehienak bildu dire giro ezin hobean.

**Amorroin Kofradiaren besta**

pasa den igandean ospatu da. Usaian bezala, Euskal Herriko hogoi bat kofradi hurbildu dire, gehienak Hegoaldekoak. Mezaren ondotik, karriketan barna ibili dire aperitifa Gantxikin hartzeko. Gero, Kofradietako partaideek elgarrekin bazkaldu dute Bonet jatetxean.

**Lapurdiko Itzulia**

auto zongehiagoka martxoaren 27, 28 eta 29an izanen da. Usaian bezala, arrabots frango izanen da, bainan ikusgarri ederra ere.

## SARA



Gazura baino garagardoa hobe



San Pantzar sutan

# Ihauteri ederrak ospatu dituzte gazteek aro txarrari gogor eginez

Adinekoek ere tripotx jatea ukan zuten

MIXEL ETA JACQUELINE

Otsailaren 21ean, goizetik haste hogoita hamar bat gazte abiatzen ziren plazatik traktore batekin ihauterikari. Aro txarrari gogor eginez Elbarrun eta Lehenbizkai auzoetan ibili ziren, Berako Irastorza anai-arrebak trikitilari gazteak lagun. Biharamunean, usaian bezala, plazan eguerditan elgarretaratzeko deia zabaldua zen. Hor gazte, mozorrotu, haur eta dantzari bateratu ziren eta Ezpeletako txarangarekin batean bazterrak alaitu zituzten. Bukaeran, Zan Pantzar auzipetatua izan zen eta kalte ainitzen hogendun izanez, erretzea deliberatu zuten. Ondotik, gazte andana batek Lastiry jatetxean bazkaldu zuen.

Adinekoak ere beren gisako Ihauteriak ukan zituzten tripotx jatearekin. Urtero bezala Herriko Etxeak gomitaturi, 120 bat bazkaltiar elkartu ziren Omordian bazkari herrikoi baten inguruan, otsailaren 21ean. Larunbat arrats hortan berean, Besta Elkarteko kideen aldia zen. Hauek bigarren aldikotz, Astigarragako Petritegi sagardotegira joan ziren. 45 lagunek parte hartu zuten ateraldi hartan.

## Bixenteren aldeko sustengu afaria martxoaren 21ean

Bixente Garciaren aldeko sustengu afaria Omordian iraganen da martxoaren 21ean, arratseko 8etan. Biga Sarako sustengu komitea dugu antolatzailea. Txartelak salgai dira oraidanik leku hauetan: Baionako Kaietenian, Donibane Lohitzuneko Battelan eta Sarako Herriko Etxeko edantegian. Lekuen arrastatzeko dei dezakezue arratsadetan 05 59542519 zenbakirat.

Erran gabe doa bertsu eta soinu izango dela gau hortan.

Pierre GONI Baratzea
SENPERE • ✆ 0559541303

DUHAU-ARANA Kinkaileria
Karrika Nagusia • SENPERE
✆ 0559541044

ARMUA Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

LA GAITA
PIZZA TALOA eremaiteko + BIDEOAK
Plaza SENPERE
✆ 0559541122

Sagarnotegia
ZELAIA Hernaniko Sagardoa Sagarnotegia
Telefonoa Iparraldetik
00. 3443555851 - 00. 3443550281
Telefonoa Nafarroatik
943. 555851 - 943. 550281
Martindegi auzoa, 29
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

ZUGARRAMURDI

# Mendi taldea sortu dute herriko zenbait mendizalek

## Zugarramurditik Elizondorako bidea egin zuten martxoaren 1ean

MARGARI ETA KORO

Dirudienez Mendi Talde bat sortzen ari zaigu herrian. Orain arte bere kontuz igandero mendira ateratzen diren batzuk hitz egiten hasi dire tarteka irteera batzuk antolatzeko.

Lehenbizikoa gan den martxoaren 1ean egin zen: Zugarramurditik Elizondorainoko bidaia, eta arrakasta haundia izan zuen, hogeita bi lagun oinez gan zirelakoz (hori bai, gero Elizondon bazkaltzeko 29 elgarretaratu ziren). Ibilbidea kanpamentuetatik atera eta Hirumugetatik Eskisaroi eta Atxuela aldera hartuz, azkenean Bagordin agertzeko. Dirudienez, bide labur eta zuzenagoak ba omen dire, bainan huntatik karreteraz ez ibiltzea eta malda guttiago izatea ziurtatzen zuten. Jendea izigarri kontent gelditu zen eta bertze bidai bat, Bera alderat edo, egiteko prestatzen ari dire. Pittan-pittan inguruko herri gehiagotara ere gatea espero dute.



Mendizale taldea, Zugarramurditik Elizondorako bidean

### Omenaldia

Aintzinatu nahi dugu, hilabete hunen azkeneko asteburuurakoz (28 eta 29) Estefa eta Mikelentzat (*«Kilimiliklik»* taldearen sortzaileak) omenaldi bat antolatu dela. Bertan antzerki eta musika taldeak arituko dire bi egunetan, goizetik arratserat. Egitarauari buruzko xehetasun gehiago hurrengo TTIPI-TTAPAN emanen dugu.

URDAZUBI

# Herrira sartzeko errepidea moldatuko da

Nafarroako Gobernuak Urdazubirako sarrera moldatuko du N-121-B errepidean eta lan honek ingurugiroan sortzen ahal dituen ondorioak ere zuzenduko ditu. Bi proiektu hauek onartu berri ditu Herrilan, Garraio eta Komunikabide Departamenduko sailburuak.

Herrira sartzeko bidegurutzean, hirugarren karril bat eginen da erdian – 185 metrotan errepidea zabalduko da – eta, eraberean, malda kenduko zaio sarrerari. Lana akitzeko, pareta bat eraikiko da eta seinalizazioa eginen da. Errepidea inguruarekin hobeki egokitzeko belarra eta bertako landareak sartuko dira.

Lanok egiteko, ia 10.000 $m^2$ expropiatuko ditu Nafarroako Gobernuak. Kaltetuen zerrenda Herriko Etxean dago ikusgai, nahi duenak ikusi eta kexak egin ditzan.

INTERMARCHÉ
Les Mousquetaires
24/24
© 0559541061 • Gaztelu Plaza - 64310 SENPERE

ZALDUBI
Martin Lizasoain Adansa
• SUKALDE MOBLEAK
• BAINU MOBLEAK
• MANPARAK
Zaldubi Poligonoa • © 580562 IRURITA



Kutxa
gipuzkoa donostia kutxa
Beñat Larraburu
Sukurtsaleko zuzendaria
7, Portuko Karrika
Tel. 0559203274
Fax 0559203237
64700 Hendaia

## EZKONTZAK

**Jose Maria Ibarra Maia** eta **Mª Angeles Iza Iparragirre**, Irungoak, Etxalarren, otsailaren 28an.

**Laurent Aguergaray** eta **Mylène Massé**, Senperekoak, otsailaren 21ean.

## JAIOTZAK

**Goizane Oskoz Elizalde**, Doneztebekoa, otsailaren 1ean.

**Maite Arregi Arretxea**, Doneztebekoa, otsailaren 10ean.

**Mikel Gerendiain Sarratea**, Doneztebekoa, otsailaren 24an.

**Bidane Madariaga Iriarte**, Sunbillakoa, otsailaren 22an.

**Jaione Gutierrez Touris**, Berakoa, otsailaren 10ean.

**Angel Iribarren Altzugarai**, Berakoa, otsailaren 23an.

**Mikel Larretxea Lukanbio**, Arantzakoa, martxoaren 3an.

**Argitxu Bidart**, Senperekoa, otsailaren 3an.

**Hugo Arrostéguy**, Senperekoa, otsailaren 9an.

**Ander Mitxelena Otxandorena**, Saldiaskoa, martxoaren 1ean.

**Haizea Etxeberria Terreros**, Lesakakoa, otsailaren 24an.


**ZORIONAK!**

**Gure oparia ematean lehenak izan nahi dugu**



Haurttoa jaio izan eta berehala etor zaitez Iruñeko Kutxara. Saskitxo-aldatzaile hau, haur-garbiketarako produktuez betea, emango dizugu.

**Ez ahantzi familiaren liburuxka!**

IRUÑEKO KUTXA 125


## HERIOTZAK

**Encarnacion Zubieta Sanzberro**, Etxalarkoa, otsailaren 23an, 87 urte.

**Esteban Arozena Arribillaga**, Goizuetakoa, otsailaren 22an, 72 urte.

**Tomasa San Salvador del Valle Urkijo**, Elizondon, otsailaren 19an, 92 urte.

**Juan Mazondo Amorena**, Amaiurkoa, otsailaren 22an, 92 urte.

**Felix Ursuegi Zelaieta**, Elizondokoa, otsailaren 28an, 69 urte.

**Antonio Beraza Sarranz**, Lesakan, otsailaren 14an, 85 urte.

**Bautista Etxegarai Zozaia**, Lesakakoa, otsailaren 23an, 91 urte.

**Josefa Etxegarai Etxarte**, Etxalarkoa, otsailaren 22an, 87 urte.

**Manuela Irigoien Sanzberro**, Etxalarkoa, otsailaren 24an, 91 urte.

**Mari Carmen Sestorain Larrea**, Leitzakoa, otsailaren 26an, 63 urte.

**Jose Aizpuru Sarasua**, Leitzakoa, otsailaren 10ean, 88 urte.

**Xan Perugorria**, Sarakoa, otsailaren 26an, 88 urte.

**Concepcion Larretxea Grajirena**, Arantzakoa, otsailaren 28an, 90 urte.

**Veronica Etxeberri Egui**, Zugarramurdikoa, otsailaren 28an, 84 urte.

**Martin Lekaroz Gorosterrazu**, Beintza-Labaiengoa, otsailaren 27an, 89.

**Jose Manuel Saldias Otxandorena**, Beintza-Labaiengoa, martxoaren 1ean, 81 urte.

**Jose Antonio Irazuzta**, Senperekoa, otsailaren 10ean, 68 urte.

**Yvonne Debarre**, Senperekoa, otsailaren 15ean, 84 urte.

**Marc Flahaut**, Senperekoa, otsailaren 16an, 66 urte.

**Léon Bérasatéguy**, Senperekoa, otsailaren 20an, 85 urte.

**Kilmen Madariaga**, Senperekoa, otsailaren 27an, 3 urte.

**Vicente Barandarain Lazkano**, Aresokoa, otsailaren 18an, 84 urte.

**Purificacion Pellejero Ugalde**, Aresokoa, otsailaren 28an, 98 urte.

**Kasimiro Saizar Irarzabal**, Ezkurran, martxoaren 3an, 82 urte.





**Bidali**

TTIPI-TTAPA

**herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei**

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.

Eskatu informazioa.

**✆ 631188**




**Encarnación ZUBIETA SANZBERRO**

1998ko otsailaren 23an hil zen Etxalarren, 87 urte zituela.

*Gutarik bat hiltzen den bakoitzean*
*guziak hiltzen gara,*
*baina aski hiltzen ez garenez gero*
*hiltzen gara behin eta berriro*

ZURE FAMILIA


**FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEn**



**MALDAERREKA, S.L.**

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak

Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

DATUAK..........

❶ *Amaia Lujanbio duela 16 urte sortu zen Goizuetan.*

❷ *Otsailaren 8an Lizarran egindako proban Euskal Herriko kros txapelduna suertatu zen kadete mailan.*

❸ *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila ikasten du Iruñean. Hiriburuan ematen du astea.*

❹ *Ademar taldean ari da, nahiz eta Federazioko taldearekin entrenatu. Datorren urtean Pamplona Atletico taldean arituko da.*

❺ *Martxoaren 22an Palentzian jokatuko den Espainiako txapelketan parte hartuko du.*

TESTUA:
**AITOR AROZENA**

☞ **Amaia LUJANBIO** *Goizuetako korrikalaria*

# "Proba batean parte hartzen dudanean lehen postuaren bila joaten naiz beti"

Txikitatik laisterka egitea gogoko zuela eta hasi zen konpetizioetan parte hartzen –eta gailentzen– Amaia Lujanbio goizuetarra. Honela, 12 urterekin Euskal Herriko kros txapelketa irabazi zuen alebin mailan. Pistan ere 11 urterekin eta orain bi urte, infantil mailan, irabazia du Euskal Herriko txapelketa. Lizarran kadete mailan lortutako txapelketa izan da bere azken garaipena. Beraz, ez zuen ustekabean harrapatu. *«Beti itxaropenekin joaten zara, baina inoiz ez dakizu zer gertatuko den. Hori bai, ni guziaren bila atera nintzen, ez nintzen podium egitearekin konformatzen».* Gauzak honela, dagoeneko 16 urte beteak dituela kontuan hartuz, ez da harritzekoa talde haundiak bere bila joan izana. *«Datorren urtean Pamplona Atletico taldearen izenean arituko naiz. Talde arrunt ona da, baita Espainia mailan ere».*



«Martin Fiz da gehien gustatzen zaidana, ona eta euskalduna delakoz»

**«HONETAN SEGITZEKO ASMOA DUT»**

Momentuan Ademar taldean ari da, nahiz eta Federazioko atleta taldearekin batera entrenatu, astean lau egunez. *«Kadete mailan ezin zara oraindik espezializatu, beraz ez dugu egunero entrenatzen, akatsak zuzentzeko oraindik denbora pila bat baitaukagu aurretik».*

Martxora arte, krosean aritu da eta hurrengo proba, martxoaren 22an Palentzian jokatuko den Espainiako txapelketa izanen da. Hortik aurrera, pistan lehiatuko da Amaia. *«Ekainera bitarte luzatuko da denboraldia eta nere markak* –mila metrotan 3'08" eta 3.000 metrotan 10'58"– *hobetzea espero dut».*

Bere ametsetako korrikalaria nor den galdetzerakoan ez du zalantza haundirik agertu, nahiz eta bere ustez onak asko diren: *«Martin Fiz da, oso ona delako eta gainera euskalduna delako».* Nesken artean, berriz, *«Julia Vaquero da gehien gustatzen zaidana».*

Korrikalari bezala, bere burua aztertzeko eskatu diogunean, *«sprintean ez naiz soberа ongi moldatzen, ez da nire ezaugarririk onena»* izan da goizuetarrak aipatu digun lehen gauza, baina *«nahiko konpetitiba naiz, beti irabazteko asmoarekin ateratzen naiz, ez zait galtzea batere gustatzen».* Etorkizunera begira kirol honetan segitzeko asmoa du, pista nahiz krosean. Hamasei urte besterik ez eta irabazi duen guzia ikusiz, etokizuna berea da.

*"Hamasei urterekin ezin zara oraindik espezializatu, beraz ez dugu egunero entrenatzen, akatsak zuzentzeko oraindik denbora pila bat baitaukagu aurretik"*

# Doneztebeko erremonte eskola hilabete honetan hasiko da lanean

- Iñaki Lizaso profesionala izanen da irakaslea
- Eskualdeko pilotari gazteak bildu nahi ditu

Baztan, Malerreka, Bortziriak eta inguruko pilotari gazteei erremontean trebatzeko aukera emanen dien eskola sortuko da Doneztebeen, Iñaki Martinez Lizaso erremontelari profesionalaren eskutik. Bere erranetan, 13 eta 14 urtetatik hasi eta 22 urte bitarteko gazteei pilota modalitate honetan aritzeko errextasunak emanen zaizkie eta *«honela ez dute Hernanira edo Huartera mugitu beharrik izanen»*. Eskualdeko eskola hauen bultzatzailea, hain zuzen, bi frontoi hauek kudeatzen dituen enpresa bera da eta Donezteben ez ezik, Nafarroa eta Gipuzkoako bertze zenbait herritan ere sortu dituzte.



**Hamahiru-hamalau urtetik hasi eta hogeita bi urte bitarteko erremontelari gazteek deus ordaindu gabe Donezteben trebatzeko aukera izanen dute**
Artxiboa

### «PROFESIONALETAN DEBUTATZEA HELBURU»

Lizasoren erranetan, hurbilean ikasteko aukera izateaz gain, helburua *«noizbait profesionaletan debutatu ahal izateko gazteak prestatzea izanen da»*. Hasiera batean, eskola Oronozko frontoian kokatu behar zen, baina egokitze lan dexente behar zituela eta Doneztebeko eskolako frontoia aukeratu da. Momentuan, ordutegi arazoak direla eta, astean behin arituko dira, ortziral arratsaldetan. Halere, erremonte eskola egun gehiagotan izatea da Lizasoren asmoa. Apuntatu nahi duenak 450318 telefonora deitu behar du (Iñaki).

# Iñaki Otxandorenak ASPErekin fitxatu du

- Igande honetan debutatu du oronoztarrak

Iñaki Otxandorena, atzelari oronoztarrak profesionaletarako pausua eman du ASPE enpresaren eskutik. Hiru urterako kontrata sinatu berria du eta igande honetan debutatu du Santo Domingo de la Calzadan.

ASPEk, Iñakirekin batera bertze bi afizionatu hartu ditu eta oronoztarraren ustez, enpresa berria indarrez sartzea, pilotarentzat mesedegarria izanen da. *«Batez ere pilotari afizionatuentzat ona izanen da, bi enpresa izatearekin aukera gehiago izanen baitute profesionaletara pasatzeko. Gainera, afizionatutan pixko bat gailenduz gero kontratu hobeak eskainiko dira, bi enpresak pilotari horren jabe izan nahiko dute eta»*. Pilota plazetara doaien jendearentzat ere polita izanen dela uste du, *«pikeak ikusteko»*.



**Iñaki Otxandorenak hiru urteko kontrata sinatu berria du ASPE enpresarekin**
Artxiboa

## BOTE prontoan



**Abel Barriola**
19 urteko pilotari leitzarrak bere debuta egin zuen profesionaletan, otsailaren 22an Tolosa Beotibar pilota plazan. Eskuz banakako partidua jokatu zuen Galartza IV.ren aurka eta 22-12 irabazi zuen. Barriolak duela bederatzi hilabete sinatu zuen Alti enpresarekin, baina orain arte ezin izan du jokatu, eskua barrendik lehertu egin baitzitzaion.

**Joxe Jabier Taberna**
atzelari lesakarrak Asegarce enpresarekin hiru urterako kontratua berritu du.

**Aresoko sokatira taldea indarrean**
560 kilotan lehen postuetan badabil ere, 600 kilotan onena izan zen bere multzoan, martxoaren 1ean Zanbranan egindako saioan.

**Lesakako VI. Herri Laisterketa**
Martxoaren 22an bururtuko da adin guzietako korrikalariei zabaldutako proba. Urtetik urtera arrakasta gehiago izaten ari da –iaz 559 korrikalari atera ziren– eta aurten ere hainbat kirolari izanen dira. Xehetasun gehiago 12. orrialdean.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## KONTZERTUAK

### ELIZONDO

**Martxoaren 13an,** ortzirala, gaueko 10,30etan, Kasino Ostatuan, «Los Canallas» taldea.

**Martxoaren 20an,** ortzirala, gaueko 10,30etan, Kasino Ostatuan, «Petas Zetas» taldea.

## FUTBITO

### DONEZTEBE

**Martxoaren 19an** Baztan-Bidasoako futbito txapelketaren finala jokatuko da Doneztebeko pilotalekuan, arratsaldeko 7etan.

## AFARIAK

### SARA

**Martxoaren 21ean** Bixente Garcia herriko presoaren aldeko sustengu afaria Omordia elkartean iraganen da, arratseko 8etan. Lekua arrastatzeko dei 0559542519 telefono zenbakirat.

### DONAMARIA

**Martxoaren 21ean** Donamariako Ostatuan Mus Txapelketan parte hartu duten guzien afaria eginen da. Afalondoan sariak partituko dira.

## DANTZAK

### SARA

**Martxoaren 22an** DEIADAR kanpaina kari, Sarako hainbat elkartek Mutxikoak dantzak antolatu dituzte Sarako plazan, goizeko 11tan (meza ondotik).

## ttipi-ttapa TELEBISTA


Arg: Artxiboa

**Eskualdeko zenbait Udal-gizonekin biltzen ari da TTIPI-TTAPA.**

# TTIPI-TTAPA telebistari trabak Malerrekan

## Hala ere, Malerrekako etxeetan ikusiko da

Malerrekan telebista ikusi ahal izateko, Doneztebeko Askin mendian paratu behar du antena TTIPI-TTAPAK. Antena hori Doneztebeko Udalak duen postean paratu nahi du. Baina Udalak ez dio baimenik ematen. Xaloa Telebistari, berriz, emana dio, eta handik ari da emititzen.

Zergatik ez dio Doneztebeko Udalak baimen hori TTIPI-TTAPAri ematen? Harrituta xamar utzi gaitu jarrera horrek. Izan ere, informazioa hedatu ahal izatea eta informazioa jaso ahal izatea, Munduko Nazio Elkarteak onartzen duen eskubidea baita.

Dena den, Malerrekako Udal guziek ez dute Doneztebekoak bezala pentsatzen. Horrelaxe ikusi dugu aitzineko egunetan inguruko zenbait Udal-gizonekin egindako bileretan. Gauza on eta aberasgarritzat jotzen baitute TTIPI-TTAPAK eskeintzen duen kanalea ikusteko aukera izatea.

## BASERRIA

### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 8.800 pta.
- **Zerri gizena** (95-100): 182 pta/kiloa.
- **Zerramak:** 100 pta./kiloa, bizirik.

### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 570 |
| 1.koa | 550 |
| 2.koa | 520 |

- **Urruxak:** Pta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 580 |
| 1.koa | 560 |
| 2.koa | 530 |

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

- **Aretze ttikiak** (15 egun ingurukoak):

**Nabarrak:** urruxak 18.000 eta idixkoak 26.000 Pta.

**Mestizoak:** urruxak 30.000 eta idixkoak 40.000 Pta.

**Behi zaharrak:**

Behi nabar gizena: 360 Pta./ Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: **EHNE**

## ☞ DISKAK




**«Zurrunbilo kaotikoa»**

**EKON**

MIL A GRITOS

Arrasateko taldearen lehenbiziko lana bada ere, Ekon osatzen duten lagunek esperientzia bazuten lehenagotik rockaren eskenan. Diska-etxe gasteiztarrak argitaratu dien diska honen inguruan, pare bat kontu: Batetik, kritikak metalaren inguruan kokatu ditu hasiera batean, bainan denek onartu diete berezko nortasuna, erabiltzen dituzten efektu bereziegatik batez ere (sampler-ak...). Musika industriala, rap-a eta bertze musika joera desberdinak nahasten dituzte CDaren 11 abestietan.

Zuzenean erakusten duten indarra eta espektakulua aipatu behar dira, bertzetik. Kontzertu bakoitzean elementu desberdinak konbinatzen saiatzen dira, kapelu eta trajeak, piroteknia, graffitiak...

JAKIN BEHARREKOAK

# Auzo-elkarteak



Zenbait etxetan funtzionamendu arauak estatutoetan biltzen dira.

**M**aiz hartzen ditugu auzo-elkarteen inguruko galdera eta kezkak kontsumitzaileendako informazio-bulegoetan. Izan ere, gero eta jende gehiago bizi baita amankomuneko zerbitzu eta elementuak dituzten etxebizitzetan, eta baserrian edo etxean bizi denak ez bezala, hainbat betebehar eta eskubide errespetatu behar ditu nahitaez.

Pisu batean bizitzen jartzen garen momentu beretik, portala, eskailerak, igogailua, argia, tuberiak eta kanpoko pareta bezalako amankomuneko elementuen jabe bihurtzen gara, bainan ezin izanen dugu zerbitzu horietako bakar batean ere aldaketarik egin, gainontzeko nagusien baimenarekin izan ezean.

Horrelako erabakiak hartzeko batzarrak egiten dira urtean behin guttienez. Bertan hartutako erabakiak akta liburuan biltzen dira, eta parte hartu ez duten nagusiei idatziz igortzen zaie ondoren. Bilkuraz geroztik, 30 eguneko epea dago erabakiak errekurritzeko.

Ohikoak edota premiazkoak diren konponketak, ordea, etxeko lehendakariaren (edo baldin badago administrariaren) gain doazi, baina gainerakoak egiteko bizilagunen baimena behar-beharrezkoa da. Hala ere, gogoan hartu behar da edozeinek behartzen ahal gaituela premiazkoa den konponketa bat burutzera sententzia baten bidez, nahiz eta batzarrean onartua ez izan. Honen harian legeak dioena ondoko hau da: 'etxeko elementu edota zerbitzu desberdinak mantentzeko gastuetan jabe guztiek hartu behar dute parte'.

*Honen harian legeak dioena ondoko hau da: 'etxeko elementu edota zerbitzu desberdinak mantentzeko gastuetan nagusi guztiek hartu behar dute parte'.*

Nolanahi ere, esperientziak erakutsi digunez, gisa honetako arazoak informazio faltagatik sortzen dira batipat.

Mikel BEZUNARTEA
*IRATXE*
*Kontsumitzaileen Elkartea*

## LIBURUAK




«Zergatik gerrak?»
Gilles Perrault
AXURI BELTZA

Haurrek errex irakurri eta beren buruarekin gogoeta pixkot egin dezaten liburu egokia dakarkizuegu oraingoan.
Hamaika-hamabi urteko neska-mutikoekin gerra bezalako gai arantzatsu bat eztabaidatzeari lotu zaio Gilles Perrault idazle aski ezaguna. Haur horien ikuspuntutik gerra ergelkeria besterik ez da, bainan hala ere beti izanen dela gerrarik uste dute denek. Gainera, kilikagarriak direla pentsatzen du gehiengoak, eta zer erranik ez gerretako bideojolasak edo "Rambo" bezalako 'aktoreak'.
Haurrek mundu bitxi hau –ahal baldin bada– konprenitzen hasteko tresna dugu "Zergatik gerrak?". Bego Montorio itzultzailearen lan finari esker irakur dezakegu euskaraz.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## ZINEA

### LEITZA

**Martxoaren 13 eta 15ean** "Smila, misterio en la nieve".

**Martxoaren 20 eta 22an** "Carreteras secundarias"

## BERTSOAK

### LEITZA

**Martxoaren 15ean** Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren kanporaketa eginen da zine aretoan, arratsaldeko 5etan.

## MENDI IRTEERAK

### ELIZONDO

**Martxoaren 15ean** Baztango Mendigoizaleak Aitzkorrira joanen dira.

**Martxoaren 22an** Baztango Mendigoizaleak Itsusiko ingurura joanen dira.

**Martxoaren 15ean** Ikastolako Mendigoizaleek Izpegi-Urrizpilota ibilbidea eginen dute.

**Martxoaren 22an** Ikastolako Mendigoizaleek Kalain-Soate ibilbidea eginen dute.

## GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnora. deitu behar da

**Martxoaren 9tik 15era** Bera, Narbarte, Lezaun, Urdazubi eta Goizueta.

**Martxoaren 16tik 22ra** Etxalar, Doneztebe, Iturralde, Leitza eta Goizueta.

**Martxoaren 23tik 29ra** Arantza, Sunbilla, Lezaun eta Goizueta.

# MERKATU TTIKIA

**ETXEBIZITZAK**

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK / LOKALAK**

107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK / ORUBEAK**

112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**

201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**

301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**

401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**

501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**

601. Salerosketak
602. Emateko
603. Klinikak

**DENETARIK**

701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**

**zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...** *Hegoaldetik deitzeko 948- Iparraldetik 00-34-48* **631188**

**...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa**k ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

**BERA.** Pisua salgai, 3. solairuan. Mobleztatua eta arras eguzkitsua. Urruña plazan. ✆ 948 306 502 eta 948 450 054.

**BERA.** Pisua salgai Agerran. 3 sukalde, egongela, 2 komun, aseoa eta ganbara igogailuarekin. Merkea. ☎ 948 631 305.

**BERA.** Agerra auzoan, pisua eta bajera salgai. Pisua mobleztatua, lau logela eta sukaldearekin. ☎ 948 630 412 (gauetan).


**BERA**
*Etxea salgai*
Kaxerna auzoko 8. zenbakia, 3.000 m²ko lur-eremuarekin. 400 m² erabilgarriak.
*2 egongela, 7 logela, 4 bainugela, sukaldea, jangela, despentsa, garajea eta terraza.* ✆ 948 631137/630941


## ETXEBIZITZAK

### 102 EROSI

**Borda** bat erosiko nuke, egoerak ez du inporta. ☎ 948 451 841.

**Etxea** edo baserria erosiko genuke Bera, Lesaka eta Etxalar inguruan. Berritu beharrekoa bada hobe. ☎ 948 631 136.

## ETXEBIZITZAK

### 103 ERRENTAN EMAN

**BERA.** Pisu bat errentan emanen nuke, mobleztatua. ☎ 948 630 270 (eguerdi-arratsetan).

## ETXEBIZITZAK

### 104 ERRENTAN HARTU

**LEITZA.** Pisu bat errentan hartu nahi da martxoan. Erdi amueblatua edo amueblatua. ☎ 948 513 010.

**IRUÑA.** Bi neskak gela bat errentan hartuko lukete, pisu konpartitu batean. ☎ 948 279 391 (Maribi, astegunez goizetan).

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 ERRENTAN EMAN

**LESAKA.** Albistur 39an garaje bat errentan emanen nuke. ☎ 948 637 820.

## LURRAK/ORUBEAK

### 112 SALGAI

**BERA.** 28.000 m²ko lur-eremua salgai. ☎ 948 630 040.

**BERA.** 705 m²ko lur eremua salgai, Itzean. Ura eta argi zerbitzua badu. ☎ 948 630 042 edo 943 283 065.

## LURRAK/ORUBEAK

### 113 EROSI

**BERA,** Etxalar eta Lesaka inguruan etxea egiteko lur-eremua erosiko genuke. ☎ 948 631 136.

## ZERBITZUAK

### 205 ZURGINAK


**ARANTZA ZURGINDEGIA**
*Jose Miguel Errandonea*
*Klase guztietako zurgin lanak*
Osiña auzoa ✆ 948-634068 • ARANTZA


## ZERBITZUAK

### 208 BERTZELAKOAK


**KULTURKARI**
**Inprenta lanak egiten ditugu**
- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!
✆ 631188


## LANA

### 302 ESKAINTZAK

**Trikitrixa,** gitarra eta bateria joleak behar ditugu, baita abeslaria ere. ☎ 948 627 661 (Sheila).

**Frantsesa dakien** neska edo mutila behar dugu 6 hilabetez ostatuan lan egiteko. ☎ 948 630 230.

**Baserri lanetan** aritzeko pertsona bat behar dugu. ☎ 909 452 285.

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

**Renault 11** gorria, Broadway modelokoa eta NA-V matrikuladuna salgai. Gasolinazkoa. ☎ 948 610 760.

**Alfa Romeo 33** autoa salgai, 1.700 motorra eta NA-T matrikuladuna. Egoera onean. Prezio negoziagarria. ☎ 948 637507 (arratsetan).

**Seat 127 Fura** autoa salgai, ITV pasatua. ☎ 948 627 530.

**Motoa** salgai, CBR-600 modeloa, 1988koa, 34.000 km. egiazkoak. Hagitz ongi zaindua. Prezioa: 350.000 pezeta. ☎ 948 452469, 948 637 318, 948 452 292 eta 929 478 565.

## MOTORRA

### 502 TAILERRAK


NISSAN **BERABI tailerrak**
✆ 948631445•BERA
**Bigarren eskuko kotxeak:**
Nissan Trade 2.0 chasisa
Nissan Primera 2d.LX, NA-AK
Land Rover motza, NA-K
Peugeot 309 GR - NA-T, polita
Patrol TOP-LINE, motza

Audi VW **SAMPI ARAGON**
**Bigarren eskuko kotxeak, furgonetak eta 4x4ak erosten ditugu.**
✆ 948 450 354 • DONEZTEBE

**MENDAUR MOTOR**
✆ 948 450333 • DONEZTEBE
**Bigarren eskuko kotxeak:**
Astra gasolina eta diesela, Fiat Tipo, Audi 100 turbodiesela, Kadett gasolina eta Corsa Diesela, lau ate.
Suzukiak: Vitara eta Samurai.


## ANIMALIAK

### 601 SALEROSKETAK

**4 urteko** zezen pirenaikoa salgai. ☎ 948 637 327 (Joxe Angel).

**Esnetako behi** bat, erditu berria, merke salduko nuke. Esne aunitz ematen du. ☎ 948 581 023.

**Ahuntza** salgai, hilabete bateko antxumearekin. ☎ 948 599 141 (Zugarramurdi).

**Ahuntzak** salgai. ☎ 948 510517.

Ardi zakurkumeak salgai, bi hilabetekoak. ☎ 948 630766.

Ahariko bat salgai, lau urtekoa, mutur gorria eta adarrik gabea. ☎ 948 397 004 (gaueko 8etatik aurrera, Mikel).

Katakume pertsa erosiko nuke. ☎ 948 451 841.

Bi behien kuota erosi edo hartuko nuke. ☎ 948 615067 (ilunabarrean).

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

Billar-amerikar mahaia salgai, egoera onean. 30.000 pta. ☎ 948 393 115.

Bigarren eskuko gasoleozko kaldera bat erosiko nuke. ☎ 948 610 859.

Esne tankea salgai, 330 litrokoa. ☎ 948 630 040 (gauez).

Esne tankea salgai, 320 litrokoa. ☎ 948 599 141 (Zugarramurdi).

Esne tankea salgai, 200 litrokoa. Alfa Laval markakoa eta gutxi erabilia. ☎ 615105.

250 kaiola untxi-amenak, eta bertze 250 untxikumeenak. ☎ 615105.

Belarra igotzeko tresna elektrikoa salgai. ☎ 948 510 360.

Tabernetarako soinu-tresnak salgai. Mantenimendua ere egiten da. Kontzertuen sonorizazioak. ☎ 948 637 437 (gaueko 8etatik 10etara).

Kongeladore arkoia salgai, Fanela markakoa, 4 izar. ☎ 943 492 490.

## HARREMANAK

### 801 AGURRAK

Berako Gexani zorionak martxoaren 3an 3 urte bete dituelako. Zorionak Elgorriagako familiaren partetik.

## URTEBETETZEAK

*Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.*



**Juan Luis Sarratea** urdazubiarrak urteak beteko ditu martxoaren 15ean. Zorionak eta muxu bat emazte eta alaben partez.



**Mari Karmen Dendarietak** urteak beteko ditu martxoaren 12an. Zorionak eta muxu bat amatxi. Estitxu, Letizia eta Patxi.



**Ainara Arretxea Irigoien** iruritarrak 11 urte bete ditu martxoaren 8an. Zorionak guraso eta Nerea eta Ainhoa ahizpen partetik.



**Miren Sein Goñi** ittundarrak 4 urte beteko ditu martxoaren 17an. Aunitz urtez. Javier, aitatxo, amatxo, amatxi eta atautxi.



**Oier Kañamares** berriozartarrak 2 urte beteko ditu martxoaren 15ean. Zorionak eta muxu bat gurasoen partetik.



**Jesus Mª Ariztegi** oiztarrak 33 urte beteko ditu martxoaren 24an. Zorionak Loli eta familiaren partetik.



**Luis Mari M.** beratarrari zorionak, bere "taitantos" urtebetetze egunean, martxoaren 20a. Zure emazte eta bi familien partetik.



Goizuetako **Oihane Zugarramurdi Zubietak** 2 urte beteko ditu martxoaren 23an. Zorionak familiaren partetik.



**Andoni Salaberri Prados** mugairiarrak 6 urte bete ditu martxoaren 10ean. Zorionak etxeko txikiari. Usurbilgo familia.



**Joseba Zubillaga Goñi** leitzarrak martxoaren 13an beteko ditu 11 urte. Zorionak gure kitarjole hoberenari.



**Egoitz Inda Gorriaran** sunbildarrak 12 urte beteko ditu martxoaren 27an. Zorionak familiaren partetik. Segi horren txintxo!

**Euskal Herriko** mutil guztieri, oso onak zaudete. Etxalarko Beltxaren partetik.

**Lesakako** Enara A. eta Maite I.ri, oso onak zaudete. Zuen ipurdiek txundituta naukate.

**Jaione:** Zorionak, etzazu uste 18 urte bete eta nagusia zarelakoz, edozein gauza egiteko eskubidea duzula. (broma) Aguantazaan! Espero dugu pasatu dituzun momentu txarrak barkatzea. Zure herriko kuadrilla.

**Patxiri:** Oraindik ez zaigu agertu zure urtetako txanpaina. Noiz aurkeztuko diguzu Malagako neskatxa! Aguantazak.

**Unai B.ri:** Espero dugu beti bezain fin ibiltzea txirrindularitzan. Ea noiz ikusten zaitugun Frantziako Tourreko podiumean, bi neska politen erdian. Oso ezaguna egiten bazara, ez ahaztu Azpilkuetako lagunetaz. Aunitz urtez!

**Idoia I.ri:** Segi beti bezala eta egun hauetako batean espero dugu zuk ekarritako txanpaina dastatzea. Bi musu terdi herrikoen partez.

**Ezkurrako** Unai Mariezkurrena eta Txurdiri: zorionak zuen urtebetetzeagatik, otsailaren 23 eta 24an. Herriko lagunak.

**Lesakako** Uxoa Mitxelena Arriadari zorionak martxoaren 4an 5 urte bete dituelako. Bortz muxu guraso eta Iñigo, Josune eta Laura anai-arreben partez.

**Gwendal-en** partez Eneritzeri: zure ahots politak liluratzen nau.

**Joxefi**, zorionak zure urtebetetzean. Zure neskatxaren partez.

**Amaia Tapiari:** enteratu gara zure urtebetetzea noiz den, ea pote batera gonbidatzen nauzun. Agur potxola. Zure maitale ezkutua. Moska?

**Berriozarko** Oier Kañamares-i: zorionak martxoaren 15ean bi urte beteko dituzulako eta muxu haundi bat Etxalarko familiaren partetik, bereziki zure amautxiren partetik.

**Iruritako** Luis Mi V.ri: martxoaren 28an urteak beteko ditu. Segi beti bezain majua eta ea egun hortan txanpain botila batera gonbidatzen nauzun. Zorionak eta muxu haundi bat A.A.ren partez.

**Arraiozko** Jose Ignacio Gortariri zorionak martxoaren 14an urteak beteko dituelako. Ama eta haurride guzien partetik.

**Arraiozko** Asier Larretxeari zorionak, martxoaren 22an 16 urte beteko dituelako. Arraiozko familia baten partetik. Asko maite zaitugu.





ttipi-ttapa

631188

Zure publizitaterik onena

# ☞ URTEBETETZEAK

**Sail hau debaldekoa da.**
**Norbait zoriondu nahi baldin baduzu, bidali bere argazkia eta datuak helbide honetara**

**ttipi-ttapa**
Urtebetetzeak Sailerako
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA

*Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.*



**Xabier Mayordomo Almandoz** beratarrak 2 urte beteko ditu martxoaren 19an. Zorionak. Asier eta familia.

**Andoni Espelosin Goizueta** sunbildarrak 2 urte beteko ditu martxoaren 14an. Zorionak zure familiaren partetik.

**Xabier Eltzaurdia Pikabea** beratarrak 45 urte bete ditu martxoaren 7an. Zorionak eta muxu bat Esther eta Aneren partetik.

Berako **Maddi Ugalde Eltzaurdia eta Ane Eltzaurdia Mentaberri**k hiru eta bi urte beteko dituzte martxoaren 18 eta 19an. Zorionak sorgintxoak!

**Oihane Etxarri Eltzaurdia** donostiarrak 7 urte beteko ditu martxoaren 21ean. Zorionak Berako familiaren partetik.

**Gotzone Eltzaurdia Pikabea**k urteak bete ditu martxoaren 1ean. Zorionak familia eta bereziki Maddi eta Ugalderen partetik.

**Edurne Etxeberria Petrirena** elgorriagarrak martxoaren 2an bete ditu 8 urte. Zorionak zure familiaren partetik.

**Edurne Iriarte** sunbildarrak urteak bete ditu martxoaren 11n. Zorionak bere familiaren partetik. Zazpi muxu.

**Jabiertxo Leiza** lesakarrak 16 urte bete ditu martxoaren 5ean. Zorionak lehengusuen partetik. Ongi pasa.



**Lukas Eizagirre Alzaga** irundarrak 37 urte bete ditu martxoaren 8an. Zorionak bere familiaren partetik.

**Felix Telletxea Rekalde** oiartzuarrak 37 urte bete ditu martxoaren 2an. Zorionak familiaren partetik.

**Itsaso Leiza Alzugarai** lesakarrak 17 urte bete ditu otsailaren 25ean. Zorionak!

**Arkaitz Urroz** beratarrari zorionak bere lagunen partez martxoaren 14an 19 urte beteko dituelako. "Mangas, gonbidatu pote batera".

**Jorge Garate Arrieta** elizondarrak 13 urte beteko ditu martxoaren 25ean. Zorionak aita, ama eta anaiaren partez.

**Jaione Kortea** azpilkuetarrak 18 urte bete ditu. Aunitz urtez!

**Unai Barazabal** azpilkuetarrak 19 urte bete ditu. Zorionak herrikoen partez, Indurain!

**Idoia Iturralde**k 20 urte beteko ditu. Zorionak Azpilkuetakoen partez.

**Joxe Migel** azpilkuetarrari zorionak Azpilkuetako neska eta mutikoen partez.

**Patxi Alkasena** azpilkuetarrak 17 urte bete ditu. Zorionak!



**Maribel Etxeberria Etxarte** lesakarrak 24 urte bete ditu martxoaren 6an. Zorionak familiaren partetik.

**Juan Jose Gorosabel Irigoien** narbartearrak 39 urte beteko ditu martxoaren 30ean. Zorionak familiaren partetik.

**Unai Mariezkurrena** ezkurdarrak 15 urte bete ditu otsailaren 23an. Zorionak. Ezkurrako neska lagunak. Aupa Athletic!!!

**Josu Mitxeo Oteiza** gazteluarrak urtea beteko du martxoaren 4an. Zorionak familiaren eta bereziki arreba Maialenen partetik.

**Irati Garaiar** beratarrak urtea beteko du martxoaren 14an. Muxu haundi bat familiaren partetik.

**Mari Jose Ara** beratarrak 22 urte bete ditu martxoaren 9an. Muxu haundi bat familiaren partetik.

**Asier Andueza Ostolaiz** beratarrak 6 urte bete ditu martxoaren 9an. Zorionak familiaren partetik.

**Elena Arretxea** elizondarrak 24 urte bete ditu martxoaren 3an. Zorionak aita, ama eta ahizparen partetik.

**Jaione Irigoien** aranztarrak 14 urte bete ditu martxoaren 5ean. Zorionak bere guraso eta ahizparen partetik.

**Nekane Ordoki Gonzalez** aranztarrak 22 urte bete ditu. Zorionak zuk dakizun baten partetik. Segi aurrera "moñoñi"!



**Nekane Ordoki Gonzalez** aranztarrak 22 urte bete ditu martxoaren 19an. Zorionak familiaren eta bereziki Leireren partetik.

**Angel Ordoki** aranztarrak urteak bete ditu martxoaren hasieran. Zorionak familiaren partetik.

**Jaione irigoien** aranztarrak 14 urte bete ditu martxoaren 5ean. Aunitz urtez bere Arantzako lagunen partetik.

**Begoña Andueza Iriarte** beratarrak martxoaren 14an beteko ditu 29 urte. Zorionak Oier eta Hegoaren partetik.

**Juan Jose Bazterrika** sunbildarrak urteak beteko ditu martxoaren 19an. Zorionak eta musu bat, maitea. B.L.

**Jesus Mª Garazo Mindegia** beratarrak 16 urte beteko ditu martxoaren 13an. Zorionak aita, ama eta Amaiaren partetik.

**Nekane Martiarena Mindegia** mugairiarrak 15 urte beteko ditu martxoaren 13an. Zorionak Berako familiak.

**Mañolo Lanz Apeztegia** beratarrak 3...4... urte bete ditu martxoaren 6an. Zorionak familiaren partez.

**Jone Urtxegi** igantziarrak urteak beteko ditu martxoaren 16an. Zorionak familiaren partetik.

**Jose Jabier Urtxegi**k urteak beteko ditu martxoaren 16an. Zorionak familiaren partetik.



**Juan Jose Erro**k martxoaren 19an 42 urte eginen ditu. Zorionak andrea eta semearen partetik.

**Ane "Txikitina"**ri muxu haundi bat, bi urte beteko dituelako martxoaren 19an. Xabierren partetik.

**Xabier Mayordomo Almandoz**ek bi urte beteko ditu martxoaren 19an. Zorionak eta muxu bat aita eta amaren partetik.

**Izaskun Goñi** donamariarrak martxoaren 13an beteko ditu 9 urte. Zorionak familiaren eta bereziki anaia Iñigoren partetik.

Zorionak Zozaiako **Nekane eta Mattin**-i, martxoaren 7an 12 urte beteko dituztelako. Muxu bat etxekoen partetik. Aupa bixkiak!

Zorionak Oronozko **Nekane**-ri, Joxe, Miren, Anabel eta Axunen partez, martxoaren 13an 15 urte beteko dituelako. Aupa potxola!

**Amaia Tapia** lesakarrak 21 urte bete ditu martxoaren 4an. Zorionak eta ea txanpainera gonbidatzen duzun. Zure koadrila.

**Ione Zozaia Irazoki** Zugarramurdiko sorgin ttikiak 4 urte bete ditu martxoaren 7an. Zorionak! Bittor eta Maialen.

**Julen Sanz Serrano** iruindarrak 6 urte bete ditu martxoaren 9an. Zorionak Elizondo eta Berako lehengusuen partetik.

Iñaki Txarandaka

Bidasoa, 50 • **BERA** • ✆ 948 630 589

**ERREKANBIO ORIGINALAK OSAGARRIAK**

**YAMAHA QUADS**

**NAFARROA ETA GIPUZKOAKO BANATZAILEA**



**BADGER YFM 80**



**BREEZE YFA 125**



**BLASTER YFS 200**



**BANSHEE YFZ 350**



**WARRIOR YFM 350 X**



**WOLVERINE YFM 350 FWX**

**SALMENTA ETA ALOKAIRUA**

'98 ezkongaiendako zerbitzu profesionalak

- **"LA ARTESA"** MOBLEAK
  NAFARROA ETORB., 13 • IRUN
  TEL. (943) 62 53 82
- LUIS **TOLOSA** INPRENTA
  ELIZA, 2 • IRUN
  TEL. (943) 624500-624921
- **ETXALAR** HOTEL-JATETXEA
  IRUÑERAKO ERREP., 70. KM.
  TEL. 635000 (ETXALAR)
- **MARI NIEVES** ANDREGAI ARROPA
  LUIS MARIANO, 6 -3.B • IRUN
  TEL. (943) 627977
- **ZINNIA** LOREDENDA
  GIPUZKOA ETORB., 32 • IRUN
  TEL. (943) 617371
- **OLATZ** BITXITEGIA
  SAN PEDRO, 3 • HONDARRIBIA
  TEL. (943) 645678
- **DANETIK** BIDEO DIGITALA
  SANTA MARIA, 19 • ZARAUTZ
  TEL. (943) 133123
- **VALLINA** AUTOAK
  DONOSTIA
  TEL. (943) 393848
- **BAZTAN-BIDASOA CAVA**
  ERRANDONEA • BERA
  TEL. (948) 630982
- **BETI-JAI** MUSIKA
  LESAKA
  TEL. (948) 637183
- **MARIA JOSE** GOZOTEGIA
  NAFARROA ETORB., 4 • IRUN
  TEL. (943) 623703
- **CORTEBLANCO** GIZON ARROPA
  TRIUNFO, 3 • DONOSTIA
- **YOAN** ILEAPAINDEGIA
  BIDASOA, 16 • BERA
  TEL. 630177
- FOTO **ZALDUA**
  TEL. 580491 (ELIZONDO)
  TEL. 450 364 (DONEZTEBE)
- **Mª CRUZ** LENTZERIA
  PARROKIA, 11 • DONEZTEBE
  TEL. 450112
- **TATIANA** DANTZA ESTUDIOA
  PINAR, 5, BEHEA • IRUN
  (943) 629210




**ZALANTZARIK GABE... ZURE EZKONTZARAKO PROFESIONALIK ONENAK**

# ttipi-ttaparen *zerbitzu komertzialak*

**LAN KOMERTZIALAK**

Kartelak, boletoak, fakturak, bisita txartelak, aldizkariak, egutegiak, liburuak, katalogo kartazalak eta paperak, buzoiratzeko publizitate orriak, inprimakiak...

## FOILETOAK

Bi orrikoak, hiru orrikoak, koloretan eginak, zuribeltzean, offset-ean edo fotokopietan
...




## KARTELAK




Neurri, kolore eta paper desberdinetan

## ALDIZKARIAK




Komeni zaizun neurri eta kopuruan, zure gustora diseinatuak

## INPRIMAKIAK




Kartazalak, buzoiratzeko paperak, egutegiak, errekordatorioak

**TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAk zerbitzu egoki eta profesionala eskaini nahi die bere lagun eta bezeroei. Horretarako sortu du KULTURKARI, zuk behar duzuna momentu batean egiteko, zure gustura diseinatua eta merke. Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!**

**☎ 631188**



# KULTURKARI